



**Alaitz REKONDO**  
Bertsolari Txapelketa Nagusian gai jartzaile  
→ 9

## Herriko bestak

Gartzainen Pilarika bestak

### DONEZTEBE → 17

Faxismoaren kontrako manifestazioa larunbatean

### MALERREKA → 19-21

Ospakizunak Elgorriaga, B.Labaien eta Zubietan

### LEITZA → 42

Bertsolari Txapelketako saioa urriaren 10ean

### BAZTAN-XARETA → 46

Eskolen besta igandean Iruritan



# Bidasoako trenaren bidea bizikletentzako?

Noruegako lurmuturretik Portugalera doan Eurovelo txirringarientzako ibilbidea eskualdetik pasatzeko proiektua prestatzen ari dira, antzinako Bidasoako trenaren bidea eginez. Baina trenbidearen Sunbillako zatiko auzotarren artean, behintzat, egitasmoak kezka sortu du.



### ELKARRIZKETA → 3

#### Fernando Etxeberria eta bere liburu berria

Ezkurrari buruz hiru-garren liburu egin du: *Etxe, baserri eta borden argazki bilduma*.



### KIROLIZKETA → 52

#### LuisMari Belarrak aizkora utzi du

Azken urteak II. Mailan pasatu ondotik aizkora uztea erabaki du.



### HEZKUNTZA → 10

#### 4.469 ikaslek hasi dute ikasturtea

Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Leitzaldea, Urdazubi-Zugarramurdi, Sara eta Senperen.

# ZARAMA + KASKEZUR

URRIAK  
**3**  
LARUNBATA

23:30 - 14C Aurretik 10C Takiluz

Saioleku puntak Elkonde: Antzonen, Txakritu | Lesakiz Abuztu | Irufu: El Inferno

# KRISI-KONTRAKOGUAIV

URRIAK  
**10**  
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzera 9C eta kontsumitza bit dohainik 03:30ak arte

# KRISI-KONTRAKOGUAIV

URRIAK  
**17**  
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzera 9C eta kontsumitza bit dohainik 03:30ak arte

# KRISI-KONTRAKOGUAIVI

URRIAK  
**24**  
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzera 9C eta kontsumitza bit dohainik 03:30ak arte

# JALISKO BAND

URRIAK  
**31**  
LARUNBATA

ETA "MAHAI INGURUAN" KANTU ZAHARREN  
DISKOAREN AURKEZPENA

23:30 - 9C

 Lur



WWW.LURELIZONINDI.COM

Unibertsitateko irakasle, ikastolako zuzendari eta UNEDeko idazkari izandakoa, Ttipi-Ttapa-ko berriemailea, mendizalea... Eta orain idazlea ere bai. Zerrenda luzea du gibelean

Ezkurrako Fernando Etxeberriak. Osasun arazoak tarteko, irakasle lana utzi behar izan zuen, eta sorterrira itzuli eta herriari buruz idazten hasi zen. *Ezkurra Herri Berezia* eta

Ezkurrako *Txantxangorri Ehiza Elkarte*ari buruzko liburuak argitaratu zituen orain urte batzuk, eta berriki, *Ezkurrako etxe, baserri eta borden argazki bilduma* kaleratu du.

Fernando ETXEBERRIA | Ezkurrako idazlea

# «Beti izan dut Ezkurrako kontuak jendeari erakusteko obsesioa»

TTIPI-TTAPA | EZKURRA

**Noiz hasi zinen idazten?**

Erretiratu ondotik. Osasun arazo bat zela-eta, irakaskuntza utzi behar izan nuen eta Ezkurrara etorri nintzen. Beti izan dut Ezkurrako kontuak jendeari erakusteko obsesioa eta orain hamar bat urte hasi nintzen.

**Ez da Ezkurrari buruz idatzi duzun lehen aldia...**

Lehenbizi *Ezkurra Herri Berezia* egin nuen. Udal artxiboan begira nenbilela, 1300 eta 1400 urteko dokumentuak aurkitu nituen. Argitaratzeak mezezi zuela pentsatu nuen eta hortik hasi nintzen. Artxiboa bakarrik ateratzea gutxi zelako, argazkiak gehitu nituen. Hori izan zen lehen lana. Bigarren liburua *Txantxangorri Ehiza Elkarte*ari buruzkoa izan zen. Ehizaren inguruko artikulu bat utzi zidaten behin, eta historian herriko ehiztariak sekulako fama izan zutelakonturatu nintzen.

**Eta orain Ezkurrako etxe, baserri eta borden argazki bilduma...**

Mendian asko ibiltzen naitzelako izan da. Mendian ibilita bordak ikusten nituen, asko erortzear eta desagertzear. Desagertzea eta izenak galtzea pena litzateke, eta horregatik egin dut. Borda eta baserrien argazkiak egin ez hasi nintzen. Gero, herriko eta Iruñeko artxi-



TTIPI-TTAPA

Fernando Etxeberria.

boetan begiratu eta XVII. mendeaz geroztik, etxeek hartu dituzten izenak topatu nituen. Euskaldunok gosea edukitzen dugu eta hitzak jateko joera dugu. Adibide bezala, beti *Ertikoetxea* erabiltzen dut. *Erdiko Etxeatik* zetorrela pentsatu izan dut beti, baina XVII. mendeko dokumentuetan *Urrutikoetxea* ageri da.

**Dirulaguntzarik izan duzu?**

Nafarroako Kutxaren *zuk erabaki, zuk aukeratu* egitasmoan, Udalaren ize-  
nean aurkeztu zen proiektu-

**LAN ABERASGARRIA**

«Niretzat defizitarioa izan da; errentagarria izateko liburu bakoitzeko 200 euro kobratu beharko nituzke. Baina garbi dut ez dudala diruagatik egin. Denborarekin borda eta baserriak desagertuko dira, baina liburuek hor jarraituko dute»

tua eta diru pixka bat ateratu zen. Horregatik ageri da Udalak argitaratu duela. Niretzat defizitarioa izan da; errentagarria izateko liburu bakoitzeko 200 euro kobratu beharko nituzke. Baina garbi dut ez dudala diruagatik egin. Denborarekin borda eta baserriak desagertuko dira, baina liburuek hor jarraituko dute.

**Zenbat denborako lana izan da?**  
Hiru urtez aritu naiz liburu honekin. Etxe eta baserriak jasotzea erraza izan da, baina bordak urrutia-

go daudenez... Baina, oso pozik nago. 50 CD eta DVD baino gehiago baditut argazkiekin eta horrek ez du dirurik balio.

**Hiru ataletan banatu duzu liburua...**

Bai: *herriko historia* pixka bat, *etxeen izenak eta aldaerak* eta *argazkiak*. Liburuarekin batera, DVD bat ere argitaratu dut, eta honek kapitulu eta argazki gehiago ditu.

**Bertzeak bertze, 79 borda aurkitu dituzu, ez?**

Bai, eta horrek garai batean Ezkurrako jendea artzaintzara dedikatzen zela esan nahi du. Egun, borda erdiak baino gehiago hondatuak daude, nahiz eta borda gehienak ondoan, artzain txabolak ikusi ditudan eta horietako gehienak zutik dauden. Batzuk zoragarriak dira.

**Nolako harrera izan du liburua herrian?**

Argitaratu ditudan 70 liburuen artean, 20tik goiti dohainik eman ditut. Eta saldu direnen artean, erdiak baino gehiago kanpoan bizi diren herritarrek erosi dituzte, kanpoan bizi direnek gehiago estimatu dute...

**Etorkizunera begira baduzu egitasmorik?**

Ezkurrako mapa egin nahi dut, baina horretarako topografo edo adituren baten laguntza beharko dut. Baditut bertze gauza batzuk ere buruan, baina ametsa maparena da.

EUROVELO → TXIRRINDULARIENTZAKO BIDEA EUROAPAN

# Urtea akitzerako jakinen da Eurovelo proiektua onartuko den ala ez

Europa osoa saretzen duen txirrindularientzako bideetako bat eskualdean zehar antolatu nahi da

Hala, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak eta Getaria (Lapurdi), Donibane Lohizune, Ziburu, Hendaia, Irun eta Hondarribiko Udalek, Bidasoa Aktiba Garapen Agentziak eta Bertizko Turismo Partzuergoak

bultzatuta, Noruegako lurmuturretik Portugalera doan Eurovelo txirrindularientzako ibilbidea eskualdetik pasako da: Endarlatsatik Iruñera bidean, Bortzirriak, Sunbilla, Doneztebe, Saldias... zeharkatuz.



Europa osoan barna pasako diren 12 bideak honela diseinatuak ditu Europako Txirrindularien Federazioak.

## TTIPI-TTAPA

Europa osoa zeharkatuko duten 12 bide eta 66.000 kilometro txirrindularientzako erabilgarri egitea. Horixe da Eurovelo proiektua. Europako Txirrindularien Federazioaren ekimenez, Europa osoan zehar Eurovelo izenarekin 12 bide egin nahi dira, eta horietako bat gure bazterretan barna pasatzekoa da. Proiektua ez dago oraindik onartua, bai-

aitzinerara aterako balitz, Noruegako lurmuturretik hasitako ibilbidea eskualdean pasako litzateke Portugal hegoalde-  
ra ailegatu aitzinetik. Frantzia barna, Ipar Euskal Herriko kostara sartuko litzateke, eta hemendik Lapurdiko Getaria, Donibane Lohizune, Ziburu, Hendaia, Irun eta Hondarribia gibelan utzita, Endarlatsan barna Bortzirrietan sartuko litzateke. Bidasoa-ko trenaren bideari segituz, Sunbillara ailegatuko litzateke, eta hemendik

Doneztebera. Trenbideari segitu eta Baztan aldera hartu ordez, Saldiasera hartuko luke, eta Orokieta eta Urrizan barna, Plazaolako trenbidearekin bat egiten luke. Handik Iruñera, gero Salamankara eta Andaluziara eta azkenik Portugalera.

**KUDEAKETA BERTIZ PARTZUERGOAREN ESKU**  
«Bertiz Partzuergo Tu-

ristikoa aspalditik dabil Bidasoako trenbidea txirrindularientzako bide bihurtzeko lanean». Horrela azaldu digu Izaskun Goñi Partzuergoko kudeatzaileak. Dioenez, «lehenengo ideia bide berdea bihurtzea izan zen. Bide berdearen izendapena emana ziregun Bide Berdeen Federazioak. Baina egokitze lan batzuk egin behar izaten dira eta ho-

riek finantzatzen dituen Espainiako Ingurumen Ministerioa da». Bide berdearen izendapena, beraz, badu antzinarako trenaren bideak, baina egokitzapenak finantzatzeko Ingurumen Ministerioak exijitzen dituen baldintzak «gogorragoak» direlako, Euroveloren aldeko apustua egin dute Partzuergoan, eta honetan dirulaguntzak Europar Batasunak ematen ditu: «Bide berdeek antzinarako trenbideak zeharkatzen dituzte, baina jende gutti bizi diren tokiak dira, eta ez da hori gure kasua». «Malguagoa» delako hautatu dute, beraz, Eurovelorena, beti ere, bide berdearen izendapena galdu gabe.

Euroveloren kasuan, finantzazioa Europar Batasunetik hartzen da. Aurrekontuaren %65eko dirulaguntza ematen du. Kasu honetan, gainerakoa ordaintzeko Nafarroako Gobernuak esku hartuko du: «gure zatiak 873.000 euroko aurrekontua du. Europatik %65 subentzionatuko lukete, eta Nafarroako Gobernuak 278.000 eu-



Felix ESPELOSIN, Sunbillako auzotarra



«Trenbidearen inguruko auzotarroi ahalik eta kalterik ttikiena egiteko akordio batera ailegatu nahi dugu»

Trenbidearen inguruan bizi garen auzotarroi ahalik eta kalterik ttikiena egiteko akordio batera ailegatu nahi dugu eta hitz egiten ari gara. Baserritarrok traktore, auto eta aziendekin ibiltzeko bidea eduki dugu orain arte, eta Eurovelo pasako balitz, hori mantentzea nahi dugu. Lur eremu partikularrak dira eta baserritarrei lehentasuna ematea nahi dugu, eta hemen bizikletan pasako direnek jakin dezatela lurrak pribatuak direla eta lehentasuna baserritarrek dutela, eurentzat paseorako baino ez dela, bertze deusetarako ez. Euroveloren barne, gaur egun araudi gutti daude, baina Europa osoan gero eta gehiago hedatzen ari denez, alde guztiak ongi aztertu nahi ditugu. Lau auzotarrekin batzorde bat osatu dugu eta orain arte bezala, bilerak egiten segituko dugu Udalarekin, Partzuergoarekin, Lau Herrietako Juntarekin eta Cederna Garalur elkartearrekin. Hitz eginez, ea auzotarroi ahalik eta kalterik ttikiena egitea lortzen dugun.

Pako ERRANDONEA, Sunbillako alkatea



«Kontu honekin gaizki ulertuak izan dira, baina solastuta gauzak garbi geldituko dira»

Txirringularrak eta auzotarrek, guztiak pasatzeko aukera izatea litzateke onena. Denak sar daitezke eta elkar errespetatzean dago kontua. Bere garaian, tren ibiltzen zenean, auzotarrek euren bideak bazituzten, baina denborarekin desagertu egin dira eta geroztik, trenaren bidea erabili dute. Eurovelo aitzinera aterako dela iruditzen zait, baina bistakoa da auzotarrak ez direla biderik gabe geldituko. Horregatik nahi dugu denen artean akordio bat bilatu. Kontu honekin gaizki ulertuak izan dira, eta bazterrak nahasten ere ibili dira batzuk, baina solastuta, gauzak garbi geldituko dira. Abokatu bat ere hartua dugu eta lantalde bat ere sortu dugu, eta bilerak egiten ari gara. Auzotarrentzat bide berdearen arauak gogorragoak zirelako utzi zen bide berdearena alde batera, eta Eurovelorena hartu zen esku artean. Honek aukera gehiago ematen dizkie ibilgailuei eta jabeei.

Izaskun GOÑI, Bertiz Partzuergo Turistikoa



«Egitasmo polita da eskualdearentzat, eta auzotarrak ere kontent izatea nahi dugu»

Eurovelo izateko bete beharreko baldintzak bide berdearenak baino malguagoak dira. Eurovelorekin auzotarrek uste dute pasatzeko eskubidea galduko dutela, baina ez da horrela. Egunean 1.000 ibilgailu pasatzen ahal badira, ez dago arazorik. Horrekin batera, eraikitzeo ahalmena murrizteko zaien beldur dira, baina orain daukagun bidea nahikoa da. Proiektu honekin gaur egun ematen zaion erabilera mantenduko da: orain ere autoak eta motorrak ibiltzen dira, jendea paseoan, bizikletan... Horrek bere horretan segituko du. Egunkari batean Bertizko Partzuergo Turistikoa proiektua aurkeztu zuela argitaratu zen, eta jendeak zuzenean bidea kenduko genielako ulertu zuen, baina proiektua oraindik onartu gabe dago. Urte bukaeran jakinen da. Egitasmo polita da eskualdearentzat, eta auzotarrak ere kontent izatea nahi dugu. Mugikortasun aldetik aukera gehiago ekarriko ditu eta turistikoki jendea erakartzeko polita da.

ro emanen dizkigu», dio Goñik. Eurovelorena aitzinera aterako balitz, bertze izendapen bat hartuko luke Donezteberako zatiak: bide berdeaz gain, Eurovelo.

Bideak nondik nora joan behar duen Europako Txirringularraren Federazioak diseinatu zuen 1997an, proiektu bezala Europara aurkeztea, ordea, Partzuergoren ardurua izan da.

**BALDINTZA «EGOKIAK»**

Eurovelo izateko baldintzak «egokiak eta ara-

zorik gabe betetzeko modukoak» direla uste du Goñik:

- %6ko aldapa baino ttikiagoa (zati laburretan salbuespenak).
- Bi txirringularrak sartzeko zabalera.
- Egunean 1.000 motordun ibilgailu baino guttiago pasa daitezke.
- Ibilbidearen %80an zoladura paratua.
- Urte osoan zabalik.
- Hornidura puntuak 30 kilometro bakoitzeko.
- Alojamenduak 50 kilometro bakoitzeko.
- Bizikletak onartzen di-

tuen garraio publikoa 150 km bakoitzeko.

**DONEZTEBE-ELIZONDO BIDE BERDEA**

Eurovelok Doneztebetik Saldiasera hartuko luke eta Doneztebetik Elizondorako tartean, bide berdearekin segituko dute: «Ingurumen Ministerioak finantzatzen saiatuko gara, hor ez dago arazorik», adierazi digu kudeatzaileak.

**'TURISMO ALDETIK ERAKARGARRIA'**

Proiektua onartua iza-

nen den ala ez urte akaberan jakinen dela aipatu digu Goñik. Eta egiteko hiru urteko epea izanen da, 2010etik 2012ra.

Onartu gabea bada ere, kudeatzaileak uste du onurak ekarriko litzukeela eskualdera: «kostara edo herri batetik bertze aukerak ekarriko litzuke: oinez, bizikletaz, patinekin... Osasunerako baliabide onalitzateke. Gainera, Eurovelo eta bide berdeek zale aunitz dituzte eta turistak ekarriko litzuke».

**AUZOTARRAK KEZKATUAK**

Eurovelo proiektuak ezinegonatu sortu du Sunbillako auzotarren artean. Egitasmoa onartuko balitz, Eurovelo euren etxe ataritik pasako bailitzateke. Adostasun batera ailegatzeko asmoz, bilkurak egiten ari dira auzotarren batzordea, Sunbillako Udala, Bertizko Turismo Partzuergoa, Lau Herrietako Junta eta Cederna Garalur. Ikusiko da zertan gelditzen den kontua.



**Nire txanda**  
Sergio PANAGUA

## Gizartea kolokan jartzen

Ostatu eman dizuegu eta beti ongi etorriak izan zarete. Ez dugu inoiz eskubideak aipatu, ematen zaizkizuelako. Hemen eskatu egin behar ditugu eta horrek ez du ostatu ematen diguna leku onean uzten. Han edo hemen gizartea gara. Zergatik ez duzue onartu nahi? Bidean elkar topatuko dugula dio esaldiak. Historiaren bide luze horretan. Han edo hemen, materia berarekin eginak gaude. Segregazioa ez da posible. Errealitatea burugogorra da, bidean gabilta. Ezikusiarrena egiten baduzue, ikusmena galtzen duzue. Lanerako, etxebizitza duinerako eskubidea ukatzen badiguzue, ongizatea galtzen duzue. Eskubideak ukatuz, denok galtzen dugu. Baita zuen seme-alabek ere. Adi egon! Gure izenean gizartea kolokan jartzen ari zarete. Eta zuen izenean mundua deshuminizatzen ari zarete.

**Hemen eskubideak eskatu egin behar ditugu eta horrek ez du ostatu ematen diguna leku onean uzten**

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Bi urteko zurrunbiloa

Bi urtetan zenbat gauza gerta daitezken herri batean! Botu guttien duen hautagaia alkate, botu gehien duen alderdia oposizioan, 300 botuemaile baino gehiagoren babesa duen taldea udaletik kanpo, bortz herritar kartzeleratuak, sei bizilagun Madrilerak deklaratzera deituak, hirigintza aferak, dimisioak eta bi urteko parentesiaren ondotik, berriaz PNV alkatetzan. Hau zurrunbiloa!

### Nabarmentzekoak



**Koldo ERKIZIA**  
Lesakako alkate ohia

Irailaren 30ean alkate izateari utzi egin dio EAKo zerrendaburuak. Onin udal taldeak "babesarik eta konfidantzarik eman ez diolako" aurkeztu du dimisio "atzerazina".



**Miguel Angel PETIRENA**  
Iturengo alkatearen heriotza

Irailaren 15ean hil zen Iturengo alkatea, 72 urte zituela. 2007ko udal hauteskundetan EAKo zerrendaburu izan zen eta aitzineko bi legealditan zinegotzi ere izana zen.



**Iñigo OLAETXEA**  
Bertsolari lesakarra

Euskal Herriko bertso-lari txapelketa nagusian lanean hasiko den eskualdeko lehen ordezkaria da, Nafarroa eginen den saio bakarrean gainera. Urriaren 10ean Leitzan du hitzordua.

### Atzera begira → 1990.10.01 / TTIPI-TTAPA 47. zbk



### «Argentinoen» bixita izan zen eskualdean 1990ean

Arkupeak elkarteak Argentinako euskaldunak Euskal Herrira ekartzeko saiakerak fruitua eman zuen 1990ean eta halaxe bildu zuen ttipi-ttaparen 47. aleak. Erretiratuen elkarteak beharrezko laguntzak eskatu (eta lortu) eta 61 euskal-argentinarrak ziren gure artera. Argazkia, orduko Laminaciones de Lesaka enpresa bisitatu ondotik egindakoa da. Testuak zioenez, "ezaguna den bezala, 20 egunez izan ditugu gure artean, leku ezberdinak bisitatuz eta hemen dituzten senitartekoak ikusiz bide batez". Hurrengo alean, Agustina eta Magdalena Almandoz elkarriketatu zituen aldizkariak, Arantzako Urdingobordako Roman Almandozen alabak, biak Argentinan sortuak.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

### 2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria .....	.36€	Ipar Euskal Herria .....	.54€	Amerika eta Australia .....	120€
Espainia .....	.36€	Europa .....	.54€	Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza .....	.30€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Lasaitasun faltsu batean gaude, baina EREak hor daude

Joxe Mari ARRIBILLAGA (ELA)

**E**skualdeko lantegi handien artean Zalaingoa du egoerarik kaxkarrena, 140 langile kaleratzeko arriskua baitago. Arcelor badirudi pixkanaka berpizten ari dela, konbenioa lantzen ari dira eta heldu den urtetik Bidasoa Planean sartzeko asmoa dute. Oraindik EREn daude, baina berpizteko asmoa dute.

Funvera eta Saveran langileak kaleratzeko arriskuak zeuden, baina momentu honetan ixilik daude eta Fundicione-sen lana berriz piztu da. Honek nolabaiteko lasaitasuna ekartzen du, baina kontuz ibili beharra dago. EREn zeude-

**«Administrazio ezberdinak enpresarioen eta kapitalaren menpe daudenez, hartu dituzten neurriek ez dute eraginik izan»**

nak berdin segitzen dute lantegi horietan eta tti-kiagoetan ere, Composites Gurea, Aparan, Palmadera, Maderas Zabala, Kider... Eraikuntza arloan ere pizten ari dela ematen du, baina Alman-dozko frontoia berritzeko lehiaketara 12 enpresa aurkeztu dira eta horrek lan askorikan ez dagoela erakusten du. Eraikuntzako zenbait enpresa desagertu egin dira lehen urte erdian. Udaberrian hainbat ekimen, protesta, greba orokorra... izan genituen eskualdean eta udako geldialdiaren ondotik, berriz ere mugitzen hasi beharra dago. Gabeziak non dauden adieraziz eta soluzioak emanez dekalogo moduko bat egin dugu sindikatu abertzaleok. Elkarrekin zenbait mobilizazio egiten hasi gara eta ELAK urriaren 7an Bilbon ekitaldia eta manifestazioa deitu du. Enpresarioak eta patronalak berea bertzerik ez du ikusten eta langileak aparte uzten du, hori betikoa da. Azaroaren 13an Gasteizen eta abenduaren 11n Iruñean bertze ekitaldi batzuk deitu ditugu ELA, LAB, Hiru eta EHNEK. Krisiak hor segitzen du oraindik, ez da gaitua. Oporrak goxo moduan pasatu ditugu, lana mugitzen hasi da eta orain dela sei hilabete baino hobekixiago gaudela somatzen dugu eta horrek lasaitasuna ekartzen ahal du, baina hori ez da horrela, EREak guttienez abendura arte hor daude. Administrazio ezberdinak enpresarioen eta kapitalaren menpe daudenez, hartu dituzten neurriek ez dute batere eraginik izan. Nafarroako Gobernuak kontrataziorako 1.000 eurotik 2.000 eurora eman zuten, zortzi mila lanpostu sortzeko asmoarekin eta 69 bakarrik sortu dira., pentsa non gabiltzan! Espainiako Gobernuak ere momentuko partxeak bertzerik ez ditu proposatu. Gobernuak zerbait negoziatu edo borrokatu beharko luke ez enpresarioekin, Europan baizik, han mugitzen baita afera, eta ez gu engainatu xoxa batzurekin. Gu beti erremolkerak eta gaizki gabiltza eta iniziatiba hartu behar da.

### Gobernuan egoteagatik ez dugu interes pertsonalik babestuko

Deñe ABUIN (Lesakako Onin udal taldea)

**K**oldo Erkiziari gure babesa eman genionean, PNVk Lesakan 20 urtez izan zuen gestio-estilo eta gobernatzeko modu bat aldatzeko asmoz eman genion. Batzuetan asmatuz eta bertzeetan ez, bi urte hauetan zenbait proiektu gauzatu edo martxan jarri ahal izan ditugu, PNV alkatetzan eta gu oposizioan izanik, lortuko ez genituzkenak. Udala osatu zenean, PNVk ez zuen batzorderik ezta organu kolejiaturik hartu nahi izan eta horrek eragin zuen batzordeak banatzerako orduan, Oninek 4 zinegotzirekin EAK alkate eta zinegotzi batekin zuena baino presentzia gehiago edukitzea. Alde bakarreko ekimenak egiteaz akusatzen gaituztenean, lehendik onartutako proiektuetan edo egunero-ko funtzionamenduan izan dela erran behar dugu eta hori azken hila-betetan areagotu egin da, alkatearen presentzia eskasaren ondorioz. Bi urte hauetan guttitan izan ditugu ezadostasunik, baina bi gai zehatzek bi taldeen arteko harremanak gaiztotu dituzte: - Nabazen hirigintza garapenerako proposamena, 320 etxebizitzarekin. -Alkatearen jarrera eta ekimena oihangintza enpresa baten zorrarekin, 2007garren urtetik datorren 40.000 euroko zorra eta bere atzerapenak izan dituen. Azken kasu honetan, txantaia egin diogula dio alkateak. Azalpenak eskatu dizkiogunean, ekaineko plenoan aurkeztu genuen idatzia aipatzen du, zor honen inguruan berak egindakoaz desmarkatu ginenean. Inoiz ere ez genuen zentsura-moziorik aurkeztu, eta horrelaxe ageri da pleno horren aktan. Kontuhartzailearen txostenaren berri izan genuenetik gure jarrera azaldu genion, udalaren aholkulari ekonomikoaren aholkuak segitzea, hain zuzen. Alkateak bakar-bakarrik bere ardura zela erran zuenean, plenoaren gai-ordenean azaldu zedila eskatu genion, Oninen bere jarrerarekin ados ez zegoela garbi geldi zedin. Alkateak ez zuen horrelakorik egin. Horregatik, plenoan irakurri genuen idatzia eman genion, gure jarrera azalduz eta Mendi Batzordea utz zezan eskatuz. Dimisioari dagokionez, alkateak dimisioa ematea gobernatzeko konfidantza nahikorik ez duelako logikoa eta errespetagarria da, baina ezin da egia manipulatu eta horri txantaia eta babes eza deitu. Oninek ez du sekulan txantaiarik egin eta gobernuan egoteagatik ez dugu inoren interes pertsonalik babestuko. Nahiago dugu oposizioan egon eta hortik lan egin uzten gaituzten neurrian, lesakarrekin hartu genuen konpromisoa betetzen saiatuz.

**«Alkateak dimisioa ematea gobernatzeko konfidantzarik ez duelako logikoa da, baina ezin da egia manipulatu»**

## Irakurleak mintzo

Ongi etorri  
Bittiriko  
bestetaraO. KABELLO  
LESAKA

Lesaka berriz ere berdez jantziko zela aurreikusitako zitekeen, edozein aitzaki ona da pinturatu eta Bittiriako bestak beti elkargune interesgarria izan da brotxa lodiko eta uniforme dotoreko pintorendako.

Aldi honetan sorpresa zera izan zen, Bittiriako plazako aingeru guardakoek bestetako partaide izan nahi zutela, auzotarrekin trago batzuk hartuz txoznan. Guardia Zibilak auzoko pankarten edukia mozkortutako gazteekin nahasteko eta hauengana intimoki hurbildu eta bakoitza bere aldetik solasean hasitako gonbidapen bezala hartzen badu, bi arazo serio ditugu.

Lehenbizikoak gatazka moralaplanteatzen du, eta balio-judiziorik eman nahi ez badut ere, ez dakit noraino onartzen ahal den lanean ari diren segurtasun indarretako bikidek, duten kolorea dutela, alkohola kontsumitzea. Behar bada bere superioerei galde egin beharko zaie, nik ez baitut Benemeritaren barne araudiaren berri, eta egia errateko, ez zait sobera interesatzen, baina niri ez zait gogoratzen edaten hastea, adibidez, testu hau idazten hasi baino lehen. Eta horixe da gertatu zena, lanean eta gidatzen

hasi baino lehen edatea, nahiz eta apostu eginen nukkeen euren Patrol bat ez dela alkoholemia kontrol baten gelditzeko hautagairik onena. Seguruenik bidea libre izanzen zuten bertakoen lagun egiteko eta horrek bigarren puntura garamatza.

Ipuineko printzesek birjintasuna galdu dutenean eta gaiztoak zein diren badakigunean oraindik engainatzen ahal gaituztela pentsatzeak, inozokeria baino gehiago adimen-gaitasun eza erakusten du, baina horrek ere ez gaitu ezustean harrapatzen eta ulergarria da, talde horretako kide izateko eskatzen dituzten sarbide probak kontuan hartuta; adimen argitasuna ez da, noski, eskatzen duten baldintzetako bat.

Aurten txupinazoaren ondotik auto gonbidapena egin badute, heldu den urtean beharbada mahairen bat jarriko du te ordu batzuk lehenago eta bertzeekin batera tortilla lehiaketan parte hartzeko modua izanen dute, perrexila eta piperrak bezalako osagai berdeen irabazteko aukerarekin gainera.

Datozen bestetan izan daitezkeen sorpresa berrien esperoan, herriak berde izaten segitzeko aukera izanen du, urte osoan kolore horretakoa baita, nahiz eta udan indar berezia hartu. Baina tonu hori errepresioarena baino itxaropenarena izatea nahi nuke, biolentziak, pasiboa izanik ere, min egiten baitu edo guttienez, irain egin. Eta umemoko batek, definizio hori bere adina-



## Bota bertsoa

Migel Mari ELOSEGI «Luze» (Leitza)

## Aurrera Eguna urriaren 3an

Bertso pare bat egin dizkiot herriko elkarteari  
Aurrera bait da gure herriko hamaika ekintzen kabi  
iñauteri ta herriko jaien ospakizunen gidari  
pesta ta kirol-ajenda ikusiz  
nork ez lezake nabari  
urtean zehar Aurrerak zenbat eskaintzen dion Leitza?

Herri bizi bat izan nahian beti muxutruk lanera hori beño lan ederragorik egiterik ba ote da?  
elkartearen egunarekin bikaña dugu aukera  
pesta giroan elkartu eta adierazteko zera:  
bejondeiola lan-taldeari, animo eta aurrera!

rengatik nahiz argi faltarengatik emanez, nahi bezain malagueño izanda ere, bere lankidearekin batera herri osoa plazaatik botatzeko gai izatea (txoznan izandako estantxan Sanferminetako entzierrokoaren modukoa izan baitzen), ez da irabazitako partida bat. Edo bai? Irakurleak erabaki beharko du jendeak beldurrarengatik edo, sinpleki, nazkarengatik egin zuen ihes. Ez da egunero ikusten ez zerririk hegaka, ez behi arrosarik ezta lanean ari diren berdeak kubatak eskuan dituztela.

Utzi bakean  
Goizueta. Utzi  
bakean EHGOIZUETAKO EZKER  
ABERTZALEA

2009ko uda hau, historiara pasatuko da Espainiar estatua Euskal

Herriaren aurkako borrokan ematen ari den pausoengatik; "Terrorismoa" gorapatzearen aitzakiapean, Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa guztiz desitxuratu eta gatazka honen zati garrantzitsu bat desagerrarazi nahi dute. Egunduz bizi dugun gatazka politikoa onduko zuzena diren Euskal Preso politikoak kaleetatik atera eta beraien aldeko elkartasun mezu guztia ezabatu nahi dute.

Euskal Herriaren aurkako borroka honetan, Goizuetan ere gogor dihardute lanean. Azken bi hilabete hauetan adierazpen askatasunaren aurkako erasoak behin eta berriz ari gara jasaten Guardia Civil-a eta Foruzaingoaren eskutik: Udaletxean, gaztetxean, tabernetan, kaleetan dauden Iñigo Elizegi herriko presoaren argazkiak, Segi gazte erakundearen aldeko ikurrak, muralak, EAE-ANV alderdiaren propaganda,

presoen aldeko elkartasun mezuak... ikur eta mezu guzti hauek herrietatik kentzeko lanean dabiltza. Horretarako udal letxea eta herritarrak erabili nahi dituzte, bost eguneko epeak jarritako kasu egin ezean Audientzia Nazionalarekin mehatxueginez. Eraso guzti hauen atzean ez dago inongo arrazoi juridikorik, hau guztiaren atzean dagoena erabaki politikoa bat besterik ez da: Ezker Abertzalea mapa politikotik desagerraraztea helburu duen erabakia alegia.

Goizuetako Ezker Abertzaleak, gure herria jasaten ari den jazarpen poliziala salatu eta gure elkartasunik beroena adierazten diegu jazarpen hau sufritu behar izan duten herritar guztiei. Elkartasuna ez da delitua. Adierazpen askatasuna.

Utzi bakean Goizuetan eta utzi bakean Euskal Herria.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Andutzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«Ebakuntza egitea zen aukerarik onena. Duela bost hilabete egin zidaten ebakuntza eta ezin nuen berreskuratu mugikortasuna. Urrats bat egin beharra zegonean, ebakuntza egin edo ez nuen erreku-perazioan aurrera

egiten (...) Fisikoki ongi nago, ez dit minik ematen belau-nak, eta animo alde-tik ere oso ongi nago, dena ongi atera delako».

**Abel BARRIOLA**  
Leitzako pilotaria  
D. NAVARRA, 2009.09.23

**Zuzenketa oharra**

TTIPI-TTAPAren TELEFONO GIDA 2009 libu-ruxkan akatsa dago 87. orrialdean. INGURULAN-en telefono finkoa eta helbidea ez dira zuzenak. Apunta ezazue, mesedez, zuzena: 616 295420 –iragarkian ageri dena– eta Arretxea (Urrotz). Bar-kamenak INGURULANi eta bezero guztiei.

**11 galdera labur**

**Nolatan hasi zinen gai-jartzaile la-netan?**

Bertsolaritza utzitakoan hasi nin-tzen, jendea falta zelako.

**Nozbait gaizki ulertua izan da zuk emandako gaia?**

Bakarren batean bai, motz gelditu edo ez dute ulertu.

**Bertso eskolan ibilitakoa zara. Orain zer moduz moldatzen zara bertsotan?**

Orain utzia dut, lagunartean baka-rrik aritzen naiz.

**Egunerokoan ere bertsolaritzara dedikatzen zara?**

Ez.

**44 bertsolaritik lau nafa-rrak, eta horietatik hiru le-sakarrak. Zer du bada Le-sakak?**

Bertsotarako txoko be-rezia dela ematen du.

**Txapelketa Nagusian gai-jartzaile lana eginen du-zun bigarren aldía da. Zer moduzko es-perientzia izan zen aitiznekoa?**

Ona, horregatik errepi-katuko dugu. Lan haundia da baina gus-tura ibili nintzen.

**Nola moldatzen di-tuzue gaiak?**

Bakoitzak etxean lan egiten dugu eta gero herrialde guztietako gai-jartzaileak biltzen gara eta horrela adosten ditugu.

**Eta zuri nondik etortzen zaizkizu gaiak?**

Ahal den tokitik! Zentzu guztiak ar-gi ditugula. Ez dira beti etortzen... Gaurkotasuneko gaiak izaten dira aunitz eta telebistari begira, egun-kariak irakurriz, inguruan adituta-koarekin... Maiatz aldera hasi gi-nen lanean.

**Txapela jaunzteko fa-boritorik baduzu?**

Ez.

**Nozbait finala lruñean egi-nen ote da? Zaila.**

**Eta Euskal Herriko txapela Gipuz-koa edo Biz-kaitik atera-ko ote da? Errazagoa ikusten dut.**



**Alaitz REKONDO → Lesakako gaztea**

**elika**  
Dietetika eta elikadura

*Medikuntza dietetika eta nutrizioan  
Ondura osasuntsua  
Egunkoan ageri ematen emak  
Elkarrerik erakutsi eta entzi  
Dietak personalizatuak  
Guztuak kontuz hartu ahalak  
Elkarrera heziketa  
Nerantzeko jarraitzea*

Ikar Andueza Larra  
Itza, 6 beheko - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

**LABE ZAR**

Tel: 948 631 076 - BERA

**larreta**  
IGELTSU PROIEKTATUA

Goñe Arriola 627.225.514 - Juan Mari Galarza 637.921.299

**udana**  
salazones

UNE-EN-ISO 9001  
**IAC**  
Sistema de Gestión de Calidad  
EN NORMA ISO 9001:2008  
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. - Baraña, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560

**ZOANSA**

SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi

**MARKA GUZTIAK KONPONKETA**  
Baraña, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESAKA (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

# HEZKUNTZA

IKASTURTE BERRIA → IKASTETXEETAKO DATUAK

## 4.669 ikaslek hasi dute ikasturtea, iaz baino lau gehiagok

D eredia da nagusi

**TIPI-TTAPA**

4.669 ikaslek ekin diote ikasturteari Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Leitzaldea, Urdazubi-Zugarramurdi,

Sara eta Senperen. Iazko datuekin alderatuz, gora-kada kasu gehienetan eman da -Heziketa Zikloan ez-, eta kopuru absolutuaren kasuan, iaz baino lau ikasle gehiago dira. Hizkuntza ereduetan, D ereduak segitzen du nagusi.

**BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA**

>12 urteak

**BIGARREN HEZKUNT.**

	A eredia	B eredia	D eredia
<b>BAZTAN</b>	<b>47</b>	<b>0</b>	<b>228</b>
Lekaroz-Elizondo	47		228
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>14</b>	<b>26</b>	<b>230</b>
Arantza IP			6
Bera (Toki Ona)	14	26	176
Bera (Labiaga Ikast)			48
<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>136</b>
Goizueta (AN Xalto)			9
Leitza (Amazabal)			127
<b>MALERREKA</b>	<b>10</b>	<b>0</b>	<b>170</b>
Doneztebe (Mendaur)	10		170
<b>XARETA</b>	<b>144</b>	<b>72</b>	<b>5</b>
Senpere (Arratxea)	144	72	
Urdazubi-Zugarram.			5

<b>Guztira</b>	<b>215</b>	<b>98</b>	<b>769</b>
----------------	------------	-----------	------------

**2009-10** Guztira **1.082**  
**2008-09** Guztira **1.057**  
 %2.37

**BATXILERGOA**

>16 urteak

**BATXILERGOA**

	A eredia	B eredia	D eredia
<b>BAZTAN</b>	<b>14</b>	<b>0</b>	<b>125</b>
Lekaroz-Elizondo	14		125
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>85</b>
Bera (Toki Ona)			85
<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>41</b>
Leitza (Amazabal)			41
<b>Guztira</b>	<b>14</b>	<b>0</b>	<b>251</b>

**2009-10** Guztira **265**  
**2008-09** Guztira **257**  
 % 3.11

**HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA**

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredia	B eredia	D eredia	A eredia	B eredia	D eredia
<b>BAZTAN</b>	<b>8</b>	<b>0</b>	<b>257</b>	<b>37</b>	<b>0</b>	<b>409</b>
Almandoz IP			5	16		
Amaur IP			12			16
Arizkun IP			20			25
Arraioz IP			3			7
Azpilkueta IP			4			7
Elizondo (S. Fco. J.)	8		80	37		145
Baztan Ikastola			70			93
Erratzu IP			10			16
Gartzain IP			5			9
Irurita IP			28			33
Ornoz IP			17			27
Ziga IP			3			15
<b>BERTIZARANA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>12</b>	<b>0</b>		<b>7</b>
Legasa IP			4			0
Narbarte (Arotzenea)			8			7
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>1</b>	<b>25</b>	<b>286</b>	<b>14</b>	<b>51</b>	<b>423</b>
Arantza IP			21			23
Bera (Ricar. Baroja)			70			90
Bera (Labiaga Ikast)			47			87
Bera (Jesusen Biho)	1	25		14	51	
Etxalar (Landagain)			28			40
Igantzi IP			21			41
Lesaka (Irain)			62			74
Lesaka (Tantirumairu)			37			68
<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>136</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>184</b>
Areso IP			10			10
Goizueta (AN Xalto)			22			35
Leitza (Erleta IP)			104			139
<b>MALERREKA</b>	<b>4</b>	<b>0</b>	<b>162</b>	<b>20</b>	<b>0</b>	<b>256</b>
Beintza-Labaien IP			3			5
Doneztebe (S. Miguel)	4		114	20		182
Eratsun IP			2			3
Ituren IP			15			33
Saldias IP			2			3
Sunbilla IP			26			30
<b>XARETA</b>	<b>24</b>	<b>176</b>	<b>81</b>	<b>80</b>	<b>253</b>	<b>81</b>
Sara (Publikoa)		17			30	
Sara (St. Joseph)		34		40	18	
Sara (Olhain Ikast)			32			29
Senpere (Publikoa)		65			95	
Senpere (Amotz publ.)	24			40		
Senpere (St. Joseph)		60			110	
Senpere (Ikastola)			36			29
Urdazubi-Zugarram.			13			23
<b>Guztira</b>	<b>37</b>	<b>201</b>	<b>934</b>	<b>151</b>	<b>304</b>	<b>1.360</b>

**HEZIKETA ZIKLOAK / LIZEOA**

>16 urteak

**HEZIKETA ZIKLOAK**

	HLKP	Erdi Maila	Goi Maila
<b>BAZTAN</b>	<b>25</b>	<b>70</b>	<b>30</b>
Lekaroz-Elizondo	25	70	30
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>0</b>	<b>26</b>	<b>7</b>
Bera (Toki Ona)		26	7
<b>XARETA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>177</b>
Senpere (Laboran. lizeo)			177
<b>Guztira</b>	<b>25</b>	<b>96</b>	<b>214</b>

**2009-10** Guztira **335**  
**2008-09** Guztira **338**  
 % 0.89

**HAUR HEZKUNTZA**

**09-10** Guzt.: **1.172**  
**08-09** Guzt.: **1.159**  
 % 1.12

**LEHEN HEZKUNTZA**

**09-10** Guzt.: **1.815**  
**08-09** Guzt.: **1.834**  
 % 1.04

**HIZKUNTZA EREDUAK**

**A** eredia: erdaraz  
**B** eredia: mistoa  
**D** eredia: euskaraz

**GIZARTEA → DROGA PREBENTZIOA**

# Sexualitatea eta drogari buruzko informazio puntua hilean bitan zabalik

Urriaren 9an eta 23an 17:00-etatik 20:00-etara irekiko da

## TTIPI-TTAPA

Udako etenaldiaren ondotik, Udalak bultzatutako eta Askagintzak kudeatutako prebentziarako herri kontseilurako herri kontseilua martxan da. Prebentzio kontseilua drogen mendekotasunei aitzin egiteko BERA herri planaren baitan dago, eta herri partaidetzaren bitartez, osasunerako heziketan eta droga mendekotasunen prebentzioan aritzea da helburua.

Denboraldiko lehen bilkura irail erdialdera egin zuten, eta hurrengo, urriaren 13an izanen da, 19:00etan. Urteko bertze hitzorduak ere iragarri dituzte, nahiz eta aldaketaren bat ere egon daitezkeen: azaroaren 17an, abenduaren 15ean, urtarrilaren 19an, otsailaren 23an, martxoaren 23an, apirilaren 20an, maiatzaren 18an eta ekainaren 15ean.

## INFORMAZIO PUNTUA

Droga eta sexualitatea-

ren inguruan, gazteen artean sor daitezkeen zalantza eta kezkei erantzuteko informazio puntua ere abian paratuko dute laster. Kokapen berria izanen du aurten, orain arte udaltxean kokaturik egon delako, eta aurten, behin behineko bada ere, Musika Eskolako gela batean egonen da.

Informazio puntua bi ortziraletik behin zabalduko da, 17:00etatik 20:00etara. Egun haueetan egonen da irekita: urriaren 9an eta 23an, azaroaren 6an eta 20an, abenduaren 11n, urtarrilaren 8an eta 22an, otsailaren 5ean eta 19an, martxoaren 5ean eta 26an, apirilaren 16an eta 30ean eta maiatzaren 14an eta 28an.

## Toki izenak ikertzeko beka

Toki izenak ikertzeko eta horiek erabilgarri egingen dituen euskarria sortzeko beka deialdia egin dute Udalak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak.

Bi helbururekin egin dute deia: batetik, 1991n egin zen mapa eguneratu (ordutik egin-



ARGAZKIA: AITOR A.

## Eguraldiari aitzin eta gorputzari gogor

Bosgarrenez, Kirol Eguna egin zen irailaren 19an. Eguraldi kaxkarraren ondorioz edo, ez zen jende aunitz animatu goizean antolatutako ekitaldietara bai-na herri kiroltetan haur nahiz heldu dexente saiatu zen: arpanean, kokkor biltzen, zakulari lasterketan... Kenpo-Kai erakustaldian ere bildu zen jendea, Beran, Etxalarren edo Urdazubín aunitz baitira arte martzial honetan ari direnak. Marimendi taldeko emakumeek, euren aldetik, Europako gailurrik altuenera, Kaukasoko Elbrus mendira, egindako espedizioaren berri eman zuten, Mentxu Peñak aurkeztutako ikus-entzunezko interesgarri baten bitartez. Bazkariaren ondotik, atletismo proba batzuk egin ziren kiroldegian eta gero, Patxi Vilak txirindularitzaren inguruko bertze ikus-entzunezko bat eskaini zuen.

dako etxe berriak gehitu) eta osatzeko (falta diren txokoetako izenak bildu). Eta bertzetik, herriarrek toki izenak ezagutu eta zuzen erabilteko.

Eskaerak urriaren 30eko 14:00 baino lehen aurkeztu beharko dira helbide honetan: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea/Herriko plaza 7/31790 Arantzeta. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak hauek dira: memoria labur eta zehatza egin beharreko lanaren plangintza agertzen duena, nortasun agiria, Curriculum Vitae eta erroldatze agiria.

2010eko irailaren 15ean akituko da lana

egiteko epea. Argibide gehiago rako: 948 634125 edo [euskara@bortziriak.org](mailto:euskara@bortziriak.org).

## Larun-Ttikiren ateraldiak

Labiaga Ikastolako Larun Ttiki Mendi Taldeak hurrengo asteburuetan egingen dituen hitzorduak finkatu ditu dagoeneko. Hala, urriaren 11n Lizaietara joanen da -Otsandaraino autoz-, azaroaren 1ean Landagaintetara; azaroaren 15ean Enderlatsatik Behobiaraino bidgorritik -Enderlatsaraino autoz-; azaroaren 29an Santa Barbarara (Larretagaina) eta abenduaren 13an, azkenik,

Urrotzeko urtegiatar joanen dira -autoz Urrotzeraino-.

Kasu guztietan, irteerak 9:30ean abiatuko dira lamoteneatik.

## Kenpo-Kai ikastaroa

Larunbatean, urriak 3, hasiko dira Kenpo-Kai ikastaroak. Haur nahiz helduek izanen dute horretarako aukera. Helduek astelehen eta asteazkenetan 20:30-etik 21:30era izanen dituzte eskolak, eta ttikienek larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara. Izen-emateko Koro Iriarte irakaslearengana jo behar da, 680 317940ra deituta.

**sarobe**  
geologia olinpiko

7º de etorgara 25 baxo  
94700 berriaino

1948 63 08 99  
[www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)

**XIFRELLI**

Alde 1 BERA  
948 631 444

**BERA** Zere inguru klase guztietako insektuak (xomorro, zinoera, armiarma, kukuxu...) eta orratzi xagutzar garbitu nahi baduzu, deituz Termite eta Pipien tratamenduak

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 557 • Zalein, 42 A • BERA

## LESAKA

UDALA → ALKATE BERRIA IZANEN DA HILABETE BAINO LEHENAGO

# Koldo Erkiziak alkatetza utzi du «Oninen babesaren eta konfidantza galdu duelako»

Onin eta EAren arteko hausturaren ondorioz, PNVko Juan Fermin Mitxelena izanen da berriaz alkate

gotziek etengabeko txantaia egin diote alkatetzari, zentsura-mozio bat aurkezterarekin mehatxu eginez».

## «EZ DA INOIZ ZENTSURA-MOZIORIK AIPATU»

Deñe Abuin, Onineko zinegotziak, aldiz, «zentsura-mozioa aurkezteko aukerarik ez dutela inoiz aipatu» erran digu. «Hitz horiek Erkiziak eta EAko bertze zinegotziak bakarrik erabili dituzte eta hor daude plenoetako aktak». Erkiziak alkatetza uztea «penagarria» iruditzen zaio Onineko zinegotziari, «berrekin lan egiten ahal delako, baina PNVrekin hargiz zaila da». Abuinek onartu du azken hilabeteetan zenbait erabakitan ez direla ados egon EArekin. «Guk alkatetza aldatzeko botuak eman genizkion EAri. Udalean, 20 urtez PNVren menpe egon ondotik, lan egiteko modua aldatu behar zela pentsatzen genuen, baina ez zen inoiz hitzarmenik izan. Horregatik, erabaki bat egokia ez dela uste badugu kontra bozkatu dugu».

## «FUNTZIONAMENDUA NORMALDUKO DUGU»

Juan Fermin Mitxelena, PNVko zerrendaburuak «harriduraz» hartu du Erkiziaren erabakia, «baina egiten ari

Aitor AROTZENA | LESAKA

Koldo Erkizia alkateak bere kargua utzi du irailaren 30ean, ez baitu bere gobernu sozioaren, Oninen laguntzarik eta babesik somatzen. «Koherentzia politikoa-erengatik, EAk hartutako konpromisoekin koherentziagatik eta herriaren daukadan arduraren-erengatik alkatetza uztea erabaki dut» zioen Erkiziak. «Kontua ez da aulkia nola edo hala eustea. Gauregun Oninekin daukagun harremana kontuan hartuz, erabakirik zintzoena, etikoena, garbiena eta arduratsuenak dela uste dut».

Azken hilabeteetan bere lanak Oninen konfidantza falta etengabearen eragina izan duela uste du Erkiziak, «zenbait udal batzordetan neukan presidentzia uzteko mozioak aurkeztu baititu plenoan, oposizioaren babesarekin». Gainera, «Onineko zine-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

## 139 txirrindulari mendi bizikleta ibilaldian

Euriari eta ibilbidetan egin zen lohiari aurre eginez 139 txirrindularik parte hartu zuten Beti Gaztek bigarren urtez antolatutako mendi bizikleta ibilaldian (iaz, eguraldi ederrarekin 100 izan ziren). Horietatik gehienak 42 kilometroko ibilbide luzea aukeratu zuten eta hogeik 25 kilometrokoa. Ibilbide lehiakorra ez bazen ere Asier Apezetxea aranztarra izan zen bizkorrena, bi ordu eskaseta egin baitzituen 42 kilometroak eta Joxe Mari Goia igantziarra bigarren. Erorikoren bat izan zen, baina ez zen istripu larririk gertatu. Miguel Solano beratarrari egokitu zitzaion proba ondotik zozketatu zen mendi bizikleta.

diren lana eta bi sozioen artean duten harremana ikusiz, herriarentzako onena» dela uste du. Hauteskudetetan botu gehien jaso zituen taldeko ordezkariaren arabera, «Herriko Etxean egiten ari diren lana kaxkarra da, eta erabaki aunitz eta handiak hartzen ari dira batzordeetan, gero plenotik pasatu gabe». Bertzelako hitzarmenik ezean, PNVk hartuko luke alkatetza eta «prest daudela» argi dau-

ka Mitxelena. «Horretarako aurkeztu eta lesakargehien babesaren hartu genuen. Lehendik ere badakigu zer den gehiengo osorik gabe gobernatzea». Gobernu aldatetarako lehen urratsa irailaren 18an eman zen, Mitxelena lehen alkateorde izendatu zutenean. Orain, hilabeteko epea izanen da karguhartze batzarra egiteko. Lehenengoan gehiengorik ez bada, bigarrean alkatetza izanen da Mitxelena.

## Bideo-rallya eta kontzertua larunbatean

Euskara Mankomunitateak antolatuta, zenbait ekitaldi egingen dira larunbatean, urriaren 3an. 9:30ean bideo-rallya abiatuko da eta gazteek grabatzen dituzten irudiak eskainiko dituzte 18:00etan. 22:00etan kontzertua eskainiko du Zura taldeak Onin erreka gainean edo Eskriboneako arkupean.

 **ALVARO LOPEZ**  
Eskaiola, pladur lanak,  
sabal modularra, tabikeak  
OBRA ZIURTAGIRIAK  
LESAKA • 651 704 593

**BOZZ-AID**  
LAVANDEKIA  
948 637 127 • LESAKA

**IRU BIDE**  
Energia - Auzo  
Barrio 150, 311 Lesaka  
Tel: 948 637 127

**XATURETXEA**  
ZABAL  
JATETXEA  
T: 948 637 260 • LESAKA

EHIZA → USATEGIAK

## Historian lehen aldiz bi sare eta hiru postu hutsik gelditu dira

Udalak 27.925 euro jasoko ditu postuen enkantetik

### Joseba eta Nerea

Joan den irailaren 15ean egin zuten aurtengo bigarren subasta, sexta jaso zuen postu bakarraren gainean. Inork ez zuen prezioa hobetu eta 22. postua ateratako prezioan eraman zuten, 830 eurotan.

Aitzineko urteetan ez bezala, aurten 3. eta 4. sareak eta 16, 20 eta 21. postuak hutsik gelditu dira. Ez ditu inork hartu. Usategien historian lehenbiziko aldia da hainbetez postu hartu gabe gelditzen direna. Arrazoiak desberdinak dira, galdetzen diozunaren arabera. Ehizturiak «parajearen egoera txarra» aipatzen dute. «Udalak ez ditu han-

go zuhaitz-adarrak eta iratzeak garbitzen», kexu dira. Bertzalde, Patxiku Irisarri alkateak dioenez, «egiazko subasta kalean egiten dute ehizturiak, udaletxera joan aitzinetik». «Ekar hartzen dute eta horrela ez da pikerik izaten». Krisiak ere eragina izaten ahal duela aipatu du Irisarrik.

Udalak 34.775 euro jasotzea espero zuen postuak lehenbiziko aldiz enkantean atera zirenean. Baina ez da kopuru horretara ailegatu, bi sare eta hiru postu hutsik gelditu baitira. Guztira 27.295 euro jasoko ditu aurten Udalak. Joan den urtean 42.280 euro jaso zituen, 2007an 49.605 euro eta 2006an 52.333 euro. Urteik urtera marenaren saltsa. Ikusi beharko da nola akabatu den afera hau.



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

### Giro ederra Urritzokietako bestetan

Eguraldi txarrak eta euriak ez zituzten Urritzokietako auzoko bestak hondatu. Eguraldi kaxkarrari aitzin eginez, 70 bat lagun elkartu ziren Sainduneko Bordako Zubian giro ederrean bazkaltzera. Aitzinetik, meza izan zen Santa Krutz ermitan eta trikitilariak auzoan kalejiran ibili ziren. Bazkaldondotik, mus eta partxis txapelketak, irrintzi txapelketa eta bertzelako jokoak izan ziren. Xabier, Periko eta Juan Antonio Berrueta bertsolariak saio ederra eskaini zuten eta Irune eta Itxaso Elizagoien trikitilariak sekulako dantzaldia eman zuten Xanti Elizagoien gitarrista ezagunaren laguntzarekin. Giro onak eta umoreak ez zuten hutsik egin.

### Zalaparta herrian 'Mugaldekoak' filmaren grabaketa dela eta

Kamarak, fokoak, ile-apaintzaileak, furgonetak eta aktoreak harahonetan. Zalaparta ederraz sortu zuen herrian irailaren 14 eta 15ean *Mugaldekoak* filmearen grabaketak. Ezkontza bat grabatzera etorri ziren. Kasik 100 lagun. Herri-

ko Etxean jarri zituzten arropategia eta makilaje-ileapaindegia. Ezkontzaren grabaketa Antsolokuetako Iguzkiarren egin zuten, gibelego lorategian. Otorduak Anttoniok eman zizkien eta hainbat herritarrek parte hartu zuen figurante bezala. Bi egunez zineplato bihurtu zuten Etxalar. Esperientzia polita izan zela erran digute parte-hartzaileek. Filmea

estreinatu arte esperatu beharko dugu gure herria eta herritarrak pantaila handian ikusteko.

### Kenpo-Kai ikastaroa

Urriaren 5ean hasiko dira Kenpo-Kai ikastaroak. Astelehenero 17:30etik 19:00etara emanen dira eta interesatuek Modesto Ordo-kiri deitu beharko diote, 686 557758ra.

**USOA**  
nekazari kooperatiba  
ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**Javier Manterola**  
Tobako instalatzailea  
Iturgintza • gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bimilio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

**ERROTAZAR**  
harategia  
Bertako produktua  
Etegarra, 3 - BERA  
Teli/Faxa: 948 630 088

## ARANTZA

EUSKARA → HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

# Euskararen Buzoia zabalik dago herritarren kexuak hartzeko

Udaletxean dago herritarren zerbitzura

## Nerea ALTZURI

Irailaren 18an Euskara Batzordeak uda ondoko lehenengo bilkura egin zuen Herriko Etxean. Udaleko, Guraso Elkarteko, Gazte Asanbladako, eskolako eta Ekaitzako Elkarteko ordezkariak eta bartz herrietako euskara teknikari berria den Markel Lizasoain bildu ziren. Abuztu erdialdetik ari da lanean Markel. Euskara Batzordeko kideekin lehen hartu-emanan izan zuen eta elkar ezagutzeez gain, jorratu beharreko bi puntuei ekin zieten: Euskararen Buzoia eta Kultur Egunak.

## EUSKARAREN BUZOIA

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak eta UE-Mak bultzatutako Eus-

kararen Buzoia ezaguna da. Euskal hiztunok hizkuntz eskubideak ditugu eta horiek urratzen direnean Euskaren Buzoia erabil dezakegu. Herritarroei hizkuntzarekin loturiko kexa aunitz sortzen ahal zaizkigu egunerokoan: administrazioan, batez ere herritik kanpo diputazioan eskatu beharreko paperekin; argindarraren faktura hartzerakoan edota jatetxe batera joan eta karta eskatzerakoan.

Herritarren eskura dago, beraz, buzoi hau Herriko Etxean, bulegoko ordutegian. Eta kexarekin batera norberaren datuak ere jarri behar dira. Gisa berean, hizkuntzari loturiko edozein esparrutan zoriontzeko ere erabil dezakegu.

## KULTUR EGUNAK

Udazkeneko kulturaldia urriaren 30etik azaroaren 1era izanen



ARGAZKIA: PELLO APEZTEGIA

Markel Lizasoain euskara teknikari berria abuztu erdialdetik ari da lanean Euskara Mankomunitateak Herriko Etxean duen bulegoan.

da. Oraindik ekitaldiak lotzen ari dira, baina aspaldiko urteetan egiten den eta Ekaitza Elkartek antolatzen duen Baserritarren Eguna azaroaren 1ean izanen da.

Euskara Batzordearen hurrengo bilera, berri, hilaren 9an 16:30ean izanen da Herriko Etxean. Erran beharrik ez dago, herritar guzientzat atek zabalik daudela.



## PERTSONAIA

Asier APEZTEGIA

Lesakako Mendi Bizikleta Ibilaldian azkarrena

Ez zen proba lehiakorra, baina irailaren 20an Lesakan jokatu zen Mendi Bizikleta Ibilaldian bera izan zen azkarrena. Bi ordu eskas behar izan zituen 42 kilometro egiteko.

## Ehiza denboraldia abiatuko dute 200 ehiztarik

Urriaren lehenean hasi, eta azaroaren erdialdera arte, uso pasak ikusteko irrikitan egoten dira ehiztariak. Azken urteotan ez omen dute nahi adina gozatu: eguraldia, haizearen norabidea, uso postuen kokapena... Hainbat arrazoi eman ohi dituzte. Garai batean, uso gehiago pasatzen zela ere entzun dugu maiz. Baina tira, orduan beharbada, gaur egun baino ehiztari guttiago zegoen baliabiderik ez zegoelako...

Kontuak kontu, ezin uka herria arrot zalea denik, 200 ehiztari inguru daude Ekaitza eta Bagatxarko postuetan. Lehenengo mendian hirunka jartzen dira; eta Bagatxarren bi-

na. Batzuek zaletasuna baino gehiago mendiko haizea eta lagunarteko giroa dute gogoko. Hortaz, etxean bezala egoteko moduan prestatuak dauden zortzi txabola daude: bartz Ekaitzan eta hiru Bagatxarren. Basuren nola oilagorretarako zaletasuna duenik ere bada. Horien afizioak bertze hilabetetan edo epe luzeagoan dira.

Gauza bat ez bada bertze, aizue, alferrik ez galdu behintzat mendiko egonaldia! Gora begira deus ez bada ikusten, behera bista luzatu eta onddoetarako eguna probextu. Ez didazue erranen proposamen das-tagarría ez denik!

**iparra**  
Kasi Iparagirre Alzuri  
FISIOTERAPIUTA

Hizkuntzaren erabilera  
Klasi Iparagirre  
Hizkuntzaren erabilera  
Ondorengatik

00 33 559 48 19 32

**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
artesanoak desde  
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

**LEGARRA**

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA



## KRISIAREN AURKAKO PLANA. NAFARROAKO GOBERNUA

Larunbetarrek sukaldea aldatu dute. Carmenek eta Jesusek LTDa daukate. Silviak eta Edurnek ez dute zergarik ordaintzen beren arkitekto-bulegoan lehenbiziko urtea delako. Ansk lana aurkituko du. Marisari behar zuen kreditua eman diote. Eta Tomasek eta Julenek goragailu berria erosiko dute beren tailerrerako. Hori guztia Nafarroako Gobernuak Krisiaren aurkako Planean sartutako laguntzei esker.

Zuk ere laguntza horietaz baliatu nahi baduzu, argibideak ikusi webgune honetan:

[www.plananticrisis.navarra.es](http://www.plananticrisis.navarra.es)  
848 42 10 10

2012 ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA



# SUNBILLA

IKASTAROAK → IKASTURTE BERRIA

## Pilates eta eskulan ikastaroak hasiko dira aste honetan eta hurrengoan

Pilates urriaren 6an hasiko da eta eskulanena hilaren 1ean

### Jaione OTXANDORENA

Aitzineko alean aipatu bezala, hainbat izaten dira udako oporrrak akitu eta martxan jartzen diren ikastaroak. Hala, trikitixa eta pandero ikastaroarekin batera, pilates eta eskulanak egiteko aukera izanen da aurten ere.

### PILATES IKASTAROA

Bigarren urtez jarraian pilates ikastaroa emanen da gurean. Udaletxeko ganbaran izanen da, asteartetan 15:30etik 16:30era.

Ikastaroa urriaren 6an, hurrengo astea-

tean, hasiko da eta ekainaren 29a arte iraunen du. Honetan izena eman nahi duenak telefono zenbaki hauetako batera deitu beharko du: 607 744199 (Rebeca) edo 699 461392 (Izaskun).

### ESKULAN IKASTAROA

Eskulan ikastaroari, berriz, ortzegun honetan, urriak 1, ekinen zaio eta egun horretatik aitzinera ortzegunero 10:00etan bilduko dira udaletxeko ganbaran.

Eskulan ikastaroan interesa duenak eta xehetasun gehiago jakin nahi duenak ortzegunero 10:00etan udaletxeko ganbarara azaldu beharko du.

Gustuko duenak, beraz, badaki zer egin!



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Antrotokiko gazteen bazkaria

Duela urte batzuk, herriko gazte talde batek herriko bestetan frontoiko ostalua irekitzea erabaki zuen. Urtero urtero Antrotoki izenarekin bataiatu zuten ostalutako taldeari gazte gehiago batzen joan zaio. Herriko bestetan ateratzen duten diruarekin, urtean zehar ekitaldiak antolatzen dituzte eta horrez gain, bazkari bat ere egiten dute. Aurten bazkaria Ulibeltzak Elkartearen egin dute, irailaren 26an. Bazkari eta bazkaloste ederraz gozatzeaz gain, arratsaldea gustura pasatu zuten elkarrekin. Goiko argazkia Antrotokiko gazteek Asteburu Kulturean antolatu zuten herrialde desberdinetako gastronomia lehiaketakoa da. Irabazleak eta epaimahaikideak ageri dira.

**EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK**

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

	100	500	1000
Egutegiak-Txartelak	70€	350€	700€

**Kulturikal** Andutzeta, 12 - 31760 Ebalzar - Tel 948 635 458 - kulturikal@tipi.net

*Ez hutsik egin eskaintza berezi hauei!*

**Behetik**

Añorga-Ixiki, 14  
T. 943 368 781  
671 073 888  
[www.behetik.com](http://www.behetik.com)

**Eskallarak igotzea... ez da oztopo!**

plataformak • igogailu bereziak • ahulki bereziak...



GIZARTEA → FAXISMOAREN KONTRA

# Faxismoaren aurka manifestazioa egingen da urriaren 10ean

18:30ean abiatuko da Merkatuko Plazatik

### TTIPI-TTAPA

laztik honat, eskualdean zein Euskal Herriko bertze herrietan egin diren «eraso faxistak» ugariak izan dira: Doneztebe, Bera, Lesaka, Amaiur, Irurita, Legasa... Zerrenda luzea da. Bada horiek guztiak salatzeko eta sinbolo faxistak kentzea eskatzeko, manifestazioa deitu du Baztan-Bidasoako faxismoaren aurkako talde batek urriaren 10erako. 18:30ean abiatuko da Merkatuko Plazatik.

Oharbidez, mehatxatu diren pertsona eta kolektiboak gogoan izan ditu aipatu taldeak: «independentistak, abertzaleak, Gerrako fusilatuek eta euren senideak, oroimen historikoaren inguruan ari den jendea, sindikalistak, kazetariak, presoak eta preso ohiak, alkatuek, emakumeak, atzeritarrik...». «Eraso hauetan aitzinean erantzun baten beharra ikusten dugu eta pertsona hauek inpunitate osoz jokatzen dutela salatu», dio oharrik. «Falange eta eskuin muturrekoen esku-tik herri honek jasanda-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Islamari buruzko erakusketan agertu ziren gure herrian pintada faxistak, iazko azaroan.

ko sufrimendua ezin dugu ahaztu. Aldiz, bertze egoera batzuetan edozein pintada, argazki, kartel kriminalizatua da».

### FALANGE Y TRADICIONEK BERE GAIN HARTU DITU

Falange y Tradicion taldeak bere gain hartu ditu egindako pintada eta mehatxuak. Efe berri agentziara igorritako ohar bidez jakinarazi zuen 25 bat ekintza berak egingdakoak direla.

### Jantzi berriak atletismo taldean

Errekako atletismo taldeak jantzi berria ateratu du. Beraz, Doneztebe-ko Krosean, San Silvestre lasterketan, Behobia-Donostian eta bertzeetan Errekaren jantzi berria ikusiko dugu.

### Saltzaileak karriketara aterako dira urriko bigarren asteburuan

Azoka prestatu du Doneztebarrak Merkatari- en Elkarteak urriaren 10 eta 11rako: saltzaileak karriketara atera eta asteburu osoan kalean egonen dira. Bertzelako ekitaldiak ere izanen dira.

Larunbatean, 10:30ean zabalduko dituzte saltokiak eta 13:30era arte irekita egonen dira, baita 16:00etatik 20:00etara ere. Horrez gain, goizean trikitilariak bazterrak alaitzen ibiliko dira eta arratsaldean ere musika izanen da, baita jokoetan aritzeko aukera ere. Gainera, parte hartzen dutenak bizikleta baten zozketan sartuko dira. Egun osoan, haurrentzako gaztelu puzgarriak eta tailerrak izanen dira.

Igandean, urriak 11, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara egonen da zabalik azoka. Gisa berean, hanka-paloak, ipuin-kontalariak eta haurrentzako tailer eta puzgarriak izanen dira 18:00 bitartean.

Bi egunetan, taloak izanen da, eta ostatuek xixa eta onddo pintxoak eskainiko dituzte. Aipatu, azkenik, bi egun horietan erosketak egiteagatik Elgorriagako bainuetxean bi zirkuito termal egiteko bale baten zozketan sartuko dela.



### PERTSONAIA

Juan Mari ARTAZKOZ

Errekako atezain izan denak eskubaloia utzi du

Urteetan Errekako talde nagusian atezain lanetan ibili ondotik, eskubaloia utzea erabaki du Juan Mari Artazkozek. Hutsune nabarmena utziko du taldean, baina halere, ez du Errekatik aldentzeko asmorik eta taldeetako atezainekin lanean segituko du, ikasi duena bertzei erakutsiz. Horrez gain, badira bertzelako nobedadeak ere talde nagusian. Izan ere, entrenatzaile berriez gain, Eduardo Almandoz, Peio Mitxeo eta Iñaki Indabere talde nagusian hasi dira eta jubilenen mailatik Jaber Gago igo da.



## ITUREN

TELEBISTA → MUSIKA-LEHIAKETA SAIOAN HERRITARRA

# Ainara Mindegia aurtiztarrak ETBko *Bigira* saio berrian parte hartuko du



**HERIOTZA**  
Mikel PETRIRENA

Gaixotasun larri baten ondorioz hil egin da

EArekin zerrendaburu aurkeztu zen Mikel Petrirena Azpiazu 2007ko udal hauteskundeetara, eta geroztik bera izan da alkatea. Joan den irailaren 15ean, ordea, hil egin zen gaixotasun sendaezin baten ondorioz. 72 urte zituen, eta alkatea izateaz gain, Mallerrekako Mankomunitateko lehendakaria ere bera zen. Lehen ere Udalean ibilitakoa zen, eta legealdi bat baino gehiagotan alkateordea izandakoa.

**Pello Aizkorberen** heriotza ere ezin aipatu gabe utzi. Hau ere hainbat legegalditan alkate izandakoa zen, eta abuztuaren 22an hil zen, 79 urterekin.

Birjina Mariezkurrenarekin bikotea osatuko du

## Arkaitz MINDEGIA

Baleuko eta 3KOMA produkzio-etxeen eskutik *Bigira* izeneko musika-lehiaketa saio berria emititzen hasiko da hilabete honetan ETB1.

Produkzio-etxeak lehiaketan parte hartuko duten 12 bikote aukeratu ditu dagoeneko casting bidez. Eta Ainara Mindegia aurtiztarrak eta Birjina Mariezkurrena leiztarrak bertan parte hartuko dute. Bikoteak asterik aste lehiatu beharko du saria lortzeko, eta horretarako, hainbat esleitokako musika-lanak interpretatu beharko dituzte, folklorikoak edo herrikoiak, pop edo komertzialak, eta abar.

Lehendabiziko grabazioa ortziral honetan, urriak 2, egingen da eta telebistan urriaren 10ean, larunbat gauean, ikusi ahal izanen da. Zorte on!

## Inauterietako liburua salgai

Lantz, Ituren eta Zubietako inauterien inguruko azterketa lana egin zuten Mikel Ozkoidi eta Karlos Irujok bere garaietan. Argazki eta testuen bitartez, hiru herri hauek inauterietako tradizioa erakusten dute, bertan agertzen diren pertsonaia, musika eta ohi-

turen berri emanez. Bi inauteri hauek Interes Kultureko Ondare izendatzeko hainbat material prestatu zuten eta orain liburua ere kaleratu du Nafarroako Gobernuak. Bederatzi eurotan eros daiteke.

## Aioroa bigarren Donezteben

Irailaren 12an, Zazpi He-

rialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketa jokatu zen Donezteben. Nafarroako taldean Joakin Aioroak parte hartu zuen ingudearekin, eta lan bikaina egin zuen arren, ez zuen garaipenik lortu. 18 kiloko ingudearekin aritu zen lanean eta 94 altxadi egitea lortu zuen minutu eta erdiko denboran. Zorionak!



ARGAZKIAK: MARIA LARRETXEA

## Eguraldi txarrari aurpegi alai paratuz Joaldunen Eguna

Eguraldiak ez zuen aunitzik lagundu, baina horrek ez zuen bestarako gogoia oztopatu eta giro ederrean joan zen.

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA  
Tel: 948 637 266 • 607 226 691 • Fax: 948 637 511

EUSKARA → OSPAKIZUNAK

## Euskararen Eguna larunbatean

Ostiralean, pintxo lehiaketa eta mus txapelketa izanen dira

### Fermin ETXEKOLONEA

Beste urte batez, Euskararen Eguna antolatu dute gazteek larunbat honetarako, urriak 3. Dena den, aurten estreinakoz ostiralean ere, urriak 2, ekitaldiak izanen dira. 19:30ean Errandonea tabernan pintxo lehiaketa egingen da eta ondotik mus txapelketa.

Egun handia, hale-re, larunbatekoa izanen da. Goizean 10:30etik aurrera herriko trikitilariak bazterrak alaitzen ibiliko dira. Ordu berean herriko artisauek euren lanak erakusgai paratuko dituzte: egur-lanak, oihalarekin eginda-koak eta bestelako gaiak nola lantzen dituzten ikusteko modua izanen da. Talogileak ere lanean ariko dira.

12:30ean, berriz, herriarren arteko herri-kirolak izanen dira, eta ondotik, 14:00etan, herri bazkaria. Bazkalondan, kalejira egingen da

herrian barna eta 17:00etan haurrentzako eskulan tailerra izanen da eta gero berendua izanen dute.

21:30ean afora egingen da, eta, arratsaldez eta gauez GABEZIN taldearekin dantzaldia izanen da.

### TXARTELAK

Bazkarira edota afora joan nahi duenak txartelak herriko tabernetan eta okindegian edukiko ditu salgai.

### Euskara ikastera beste bi etorri dira

Aspaldiko urteetan, euskara ikasi nahi duten askok gure herria aukeratu izan dute horretarako. Hala, udan hainbat izaten dira etxeetara euskara praktikatzera etortzen diren euskaldunberriak. Aurten ere horrela izan da, baina aipatzekoa da, duela zenbait urte etortzen zirenekin alderatuz, askoz gutxiago direla orain.

Edonola ere, iraileko bigarren hamabostaldian ere baditugu bi euskaldunberri: Xapako basterrian eta Pentako etxean egingen ari dira egonaldia.



ARGAZKIAK: AITOR A.

### «Bihotza betetzeko» moduko omenaldia

«Lehendik ere jaso ditut omenaldiak, baina hau izan da handiena». Hitz horiek erabili zituen Mikel Mindegia aizkolari haundiak irailaren 12an Zubietan jaso zuen omenaldiaren ondotik. 60 urte ez direlako egunero betetzen, Mindegia ongi mezentako omenaldia jaso zuen herriaren eskutik. «Udalak egin duena asko estimatzen dut eta bihotza bete egiten zait hainbeste lagun ikusita». Izan ere, herritarrek ez ezik, herri kirol munduko hainbat kirolarik, aizkolariek eta harri-jasotzailek parte hartu zuten. Goizeko mezaren ondotik, joaldunek arkuia egin zioten Mindegiari eta gero plaza aldera jo zuten. Hainbat eta hainbat enbor prestatuak zituzten eta pixkanaka probak egingen hasi ziren. Saioari hasiera eman ziotenak etorkizuneko aizkolaria izan ziren: Kenari Erasun, Mikel Zabaleta, Julen Larrea eta Iker Vicente, 12-13 urteko aizkolaria. Ikusmin handia piztu zuen bertze saio bat etorri zen ondotik. Omenaldian parte hartu zuen emakume bakarra, Maika Ariztegi iturndarra; aizkolaririk beteranoena, Julian Larrea eta berriki jubenil mailan Euskadiko txapelkun atera den Eneko Saralegi aritu ziren. Gaztea nagusitu zen, baina emakumeak eta 80 urteko aizkolaria jaso zituzten txalorik handienak. Mindegiari ilusio berezia egin zion beste saio batean Juan Rodriguez segoviarrak, Mendizabal II.ak, Agitek, Arria II.ak eta III.ak eta Patxi Astibia parte hartu zuten. Baina horiekin batera, asko izan ziren parte hartu zuten aizkolaria: joan den mendeko txapelkun handiekin batera, gaur egungo aizkolari onenak, Floren Nazabal eta Donato Larretxea buru zutela eta urte batzuetan punta puntakoak izanen diren Jon Recondo leitzarra, Aitzol Atutxa bizkaitarra, Ander Erasun aurtiztarra edo Oihan Larretxea beratarra, besteak beste. Mindegiaren seme Migeltxo ere aritu zen aizkolarian. Aizkolariez gain, Migeltxo Saralegi, Iñaki eta Inaxio Perurena, Izeta I.a, II.a eta IV.a, Josetxo Urrutia eta Aimar Irigoienek ere zenbait altxaldi egin zituzten aizkolaria saioen artean. Mikel Mindegia berak ere zutikako enbor bat moztu zuen. Udalak oroigarria eskaini eta bi dantzarik aureskua dantzatu zioten. Loidisaltxe eta Telleria bertsoari botatuko bertsoekin eta goiz osoan sutan egon zen zikiroa bazkalduz akitu zen ekitaldi hunkigarria.

**J. RAMOS**  
zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut.  
Sakelekoaz: 637 836 073 · LESAKA

arropak · maindireak  
mantak · nordikoak  
toallak · kortinak  
alfonbrak  
**Goya**  
Altoa, 1 · Tel: 948 630 083

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
Agardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAIFARROA  
Tel: 948 630 474

# BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → ITTUR-ONDO ELKARTEAK ANTOLATUA

## Aurten seigarren aldiz Urriruko Besta eginen da urriaren 10ean

Gauean dantzaldia izanen da Jalisko Band taldearekin

### Amaia MINDEGIA

Seigarren urtez, Ittur-Ondo elkarteak Udalarren laguntzarekin, besta antolatu du urriaren 10erako, Urriruko Besta deitua.

Arratsaldean ematen diote hasiera ekitaldiei. 17:00etatik aitzinera inguruko artisauek euren lanak erakusgai paratuko dituzte plazan.

18:00 inguruan Zubietako Joaldunak karriz karriz ibiliko dira giroa animatzen. Ondotik, herri kirolek hartuko dute protagonismoa: 19:00etan harri-jasotzailea eta aizkolariak.

Goizean goizik presatzen hasitako afariaren txanda izanen da gero. 6:00etatik erretzen dagoen 250 kilo kanalean dituen aretzea afaltzeko aukera izanen



ARGAZKIAK: AMAIA MINDEGIA

Urtetik urtera gero eta arrakasta handiagoa izaten ari da Urriruko besta.

da txartela erosi dute- nentzat. Aretzea 21:00tarako jateko puntuan egonen da. Aurten, iaz bezala, karpabarruan izanen da. Ja-

teko tresnak mahaian prest egonen dira. Afarian, aretzeaz gain, salda, piperrada, gazta, irasagarra, edariak, kafea eta kopa behar adi-

na izanen da guzientzat. Guztira 300 lagunendako afaria izanen da, muga kopuru horretan mugituko garelakoz.

### DATUA

# 300

### LAGUN

elkartuko dira 21:00etatik aitzinera karpagan eginen den afarian.

### ZOKKETA

Afaltzeko ondoan zokketa eginen da, Nafarroa eta nola ez, Labaiengo produktuekin.

Herriar gehienak ez ezik, inguruko herrietatik ere jende andana hurbilduko da urriaren 10ean, larunbatearekin, Beintza-Labaienera.

Besta Jalisko Band taldearekin goizeko bostetan amaituko da.

### TXARTELAK SALGAI

Afariarako txartelak Ittur-Ondo Elkartearen, Herriko Ostatueta eta Herriko Dendan izanen dira salgai.

Ittur-Ondo Elkartearen partetik ongi pasa!

 **PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**LEURTZA ABENTURA** 

Puzgariak festetarako  
Segway - BTT  
LASER paintball  
Despedidak  
Eskolarrak

tel. 948 59 20 97  
mug. 620 37 96 42  
www.leurtza.com




OSPAKIZUNAK → TURISMOA

## Turistaren Eguna eta Onddo eta Zizen Kofradiaren egun haundia igandean

Bertzeak bertze, herri kirolak, onddo dastaketa eta musika nagusituko dira

### TTIPI-TTAPA

Mikologiari buruzko hainbat ekitaldirekin joan zen aitzineko asteburua, baina oraingoan ere bertze hainbat izanen dira. Onddo eta Zizen Kofradiak antolatuta, ospakizunek segida izanen dute larunbat eta igande honetan, urriak 3 eta 4.

Joan den asteburuan, Uraren Ibilbidea (Zubieta-Donztebe-Elgorriagako Bainuetxea), Onddoaren Ibilbidea autobusez, joaldunen joan-etorriak, herri-kirolak eta onddoekin egin-



ATXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere onddoak dastatzeko aukera izanen dute igandean Elgorriagara hurbiltzen diren bisitari guztiek.

dako plateren lehiaketa egin ziren, bertze hainbat ekitaldiren artean.

Larunbat honetan, beriz, 20:00etan irekiera bainua egingen da, eta

segidan, Juanito Mariezkurrenaren omenez Kazuela Lehiaketa jokatuko da. Aurtengoa X. edizioa izanen da. Segidan bainuak, mustxa-

pelketa eta animazioak izanen dira.

### IGANDEAN TURISTAREN EGUNA

Igandekoa izanen da

Kofradiaren egun haundia, eta aldi berean, Turistaren Eguna ere bai. Egun osoko egitaraua antolatu dute:

- 10:00etan Meza.
- Ondotik kofradeak izendatuko dira.
- Segidan Arangurengo abesbatzaren kontzertua.
- 11:00etan joaldunak, txistulariak eta txaranga herrian barna.
- 11:00etan herri-kirolak: Saralegi harri-jasotzailea, aizkolariak...
- 12:00etan onddoak eta Nafarroako produktuek dastatzeko aukera.
- 12:00etan Arangurengo abesbatzaren emanaldia.
- 14:00etan luntx mikologikoa bainuetxeko karpan.
- 17:00etan ibilbide ludiko-termala.

**ELGORRIAGA**  
BALNEARIO - BAINUETXEA

Gure gastronomia dastatu  
Gure masajeak gozatu  
Itxaso hila bezala flotatu

Estresa kentzeko ez zara urruti joan behar,  
Gure prezioak eta bonoak kentsultatu

Erreserbak: 948456045 · reservas@balnearioelgorriaga.com

9:00 tatik - 14:00 etara  
16:00 tatik - 21:00 etara  
reservas@balnearioelgorriaga.com

C/ Errotaldea s/n 31744 Elgorriaga (Navarra) T. 948 45 60 45 - www.balnearioelgorriaga.com  
%16ko deskontua tratamendu guztietan

# ttipi txartela rekin beti irabazten da

DESKONTUAK - ZOZKETAK - ALDIZKARIA MUSUTRUK



ttipi txartela egiteko edo zozketetan parte hartzeko deitu **948 63 54 58ra**. Astehenetik ostiratera 09:00 - 18:00.

## ZOZKETAK

**LIBURUAK**  
Ibaizabal Argitaletxea  
www.ibaizabal.com

**MARTIKO PRODUKTUAK**  
Martiko  
www.martiko.com

**CD + CD-ROMa**  
Urdineta eskola  
www.urdineta.org

**LIBURUA + DVD + PINak**  
Piritx, Pirrotx eta Marinetola  
www.kabigorreta.com

**2 KAMISETA**  
Oninart  
www.oninart.com

**2 KITE**  
**JANTZIA**  
Txapela bursua  
www.txapelabursua.com

- SARIDUNAK**  
ttipi txartela
- BIZI-BIZI ARRANOA (Urdineta eskola)  
Sara Muxika (Bera)
  - BIDE ERTZEAN (Kamiseta + CDa)  
M<sup>o</sup> Jose Zaldai (Ebeta)
  - KAMISETA (Txapela Bursua)  
Ainara Mendigala (Aurtza)  
M<sup>o</sup> Jose Apeztegia (Buren)
  - LOTEA (Nafarroa Oinez)  
M<sup>o</sup> Isabel Urzuteira (Bera)
  - KAMISETAK (Oninart)  
Miren Irujo Irujo (Arantz)
  - ALTXORRAK & LAPURRAK (Ikastolen Elk.)  
Xabier Ballarria
  - LIBURUA (Mendukiloko leizeak)  
M<sup>o</sup> Pilar Arrada
  - 5 SARRERA bikaitz (Mendukiloko leizeak)  
Elisbet Bergara (Donamaría)  
Ainara Muletama  
Izaso Beneretxe (Erratzu)  
Maribel Irizarren (Lekarzu)  
Arantxa Apeztegia (Purita)
  - 2 SARRERA (Camelot Park)  
Edurne Urroz (Santola)

## ttipi saskia

Bidali SMSa **5767**ra TTIPi SASKIA eta zure IZEN-DEITURA idatziz

**JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE**



Zukotan parte hartzeko egon: urtarotik 7a bitartean. Irabazteko izenak urtarotik 15eko astelehenetik abiarazuko dira. Mazarolen kotxea 1 JOKE ERZ gabe. Zure saskia ttipi txartela irabazteko gorduko dugu sarrerarik gabeko izenarekin bidaltzen berriz ezin dugu. Zuzenketa edo deialdearen berri argituko deitu 948 63 54 58ra.

## DESKONTUAK

**CASA OSTIZ**  
%10 konpainietan

**nafarpress**  
%10 liburu eta las materialetan  
testu liburuak eta bideoak ezik

**JUAN J. PIKABEA**  
%10 galza marka batzutan ezik

**L**  
%10 materialen

**SANSIÑENA**  
**CITROËN**  
%10 ulia aldaketan

BERTSOA → TXAPELKETA NAGUSIA

## Larunbatean abiatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren XV. edizioa

Eskualdekoak Silveira, Lagoma eta Olaetxea

Leitzako saioan ariko direnak: Iñigo Olaetxea, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñigo Manzisidor *Mantxi*, Ibon Ajuria, Xabier Sukia eta Etxahun Lekue.



### TTIPI-TTAPA

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren XV. edizioari larunbat honetan, urriak 3, Zestoan (Gipuzkoa) emanen zaio hasiera. 14 saiok osatuko dute txapelketa eta abenduaren 13an izendatuko da nor den txapelduna, Barakaldoko BECen egiten den finalean.

44 bertsolarik hartuko dute parte: 2 Arabatik, 12 Bizkaitik, 21 Gipuzkoatik, 4 Nafarroatik eta 5 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoatik. 2005eko Txapelketa Nagusiko finalistek eta herrialde bakoitzeko txapelketetan sailkatuek dute Txapelketa Nagusian parte hartzeko eskubidea. Bertsolarien artean, hiru dira ingurukoak, hirurak lesakarrak: **Iñigo Olaetxea**, **Erika Lagoma** eta **Xabier Silveira**.

**Olaetxeak** urriaren 10ean **Leitzan** jokatuko den final-laurdenean parte hartuko du; **Erikak** urriaren 17an Uztaritzen eta **Silveirak** urriaren 18an Zarautzen.

Sei final-laurden jokatuko dira eta horietan 36 bertsolarik hartuko dute parte. Finalurrekoetan, berriz, 24 bertsolari lehiatuko dira, 2005eko zazpi finalistak eta final-laurdenetako saioetatik sailkatuko diren 17k. Bi itzuli izanen ditu finalurreko faseak: lau lehenean eta hiru bigarrean. Final haundia, azkenik, abenduaren 13an jokatu da BECen.

"Merezi duzu" Nomina Zerbitzua

## NOMINA HONEKIN DENAK DIRA ABANTAILAK

EUREN NOMINA RURAL KUTXAN KOBIATZEN DUTEN GUZTIEK BADIUZTE JADA BALDINTZA FINANTZARIO BAKAR HAUEK.

- Nomina Kontua komisiorik gabe.
- Nomina-sumerakina dohainik.
- Nomina mailegus korriturik gabe.
- Zordunketa eta kreditu bertsolari jaulkipen kuotarik gabe eta urteko kuota %100 eta %50 arteko beharpenak hurren erostetean egindako erabilpen mailaren arabera.
- % 10eko deskontua Ebebizitza, Bizitza eta Istripu Aseguruetan.
- Zordunketa bidezko diru-ateratzak dohainik eta mugagabek Nafarroatik kanpo edozein erakunderen Serviced kutxazainetan.
- Doako kudeaketa, errezibutak zure kontuan zorduntzeko.

HELBIDERATU ZURE NOMINA RURAL KUTXAN ETA ONURATU ABANTAILA GUZTI HAUETAZ.

**DEN-DENA MEREZI DUZU**

nire aukera



Merezi duzulako.

# GOIZUETA

POLITIKA → PRESOAK

## Presoen argazkien kontrako kanpainak bete-betean harrapatu du gure herria ere

Presoen argazkiak kenduarazi dizkiote Udalarari

### Esteban AROTZENA

Euskal preso politikoaren argazkiak kalera tzea «terrorismoari gorazarre» egitea dela erabaki zuten bukatu berria den udaran Espainiako, Nafarroako eta EAEko gobernuek. Eraso honek izan du eraginik gure herrian ere, Herriko Etxean eta Udalarrenak diren hainbat erakinetan aspalditik zeuden Iñigo Elizegiren argazkiak eta legez kanpo utzitako zenbait erakunderen anagramak kenduarazi baitizkiote Udalarari, bestela alkatea Madrilgo Entzutegi Nazionalera eramango duten mehatxupean.

Abuztuaren 19ko aparteko plenoan «euskal presoen eskubideen defentsan lanean gogor jarraitzeko konpromisoa» berretsi zuen Udalak ahobatez. Kendutako argazkiak lehen-

go lekuan paratuko omen dira horretarako aukera eduki bezain pronto. Gainera, presoen eskubideen aldeko murala egiteko lekua egokituko omen du Udalak herriko eremu publiko batean.

### TABERNETAN ERE IBILI DIRA POLIZIAK

Gobernu eta polizia ezberdinen erasoak ez da leku publikoetara bakarrik mugatu. Irailaren 7an –kasu honetak foral– Iñigoren argazkiak eta Ezker Abertzalearen inguruko pegatinak kenduarazi zizkieten herriko hiru tabernariri, baina gainera Segiko aldiakariak eramateaz gain. Gaztetxean sartzerik ez zuen lortu poliziak. Herriko Ezker Abertzaleak gogor salatu ditu eraso hauek ere.

### MURALA

Toki publiko batean presoen eskubideen aldeko murala egiteko eremua prestatuko du Udalak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Presoen argazkien kontrako erasoak ez du lortu Iñigoren irudia herritik desagerraraztea.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Osasun arazoa berriz hizpide


Aranoko emakume baten heriotzak eta Etxeberriko Ixtebenek jasandako istripuak hizpide bihurtu du berriz larrialdietako medikuaren arazoa. Oihartzun handia izan du gainera gaiak Euskal Herriko eta estatuko hainbat komunikabidetan. Dena den, lehengo urteko uztailetik heldu den afera hau konpontze-ar dagoela dirudi udaletxeko iturrietatik jakin berri dugunez. Goraipagarria, beste behin, Etxeberriko gas leherketaren ondoren herriko larrialdietako anbulantzia taldeak eta suhiltzaile boluntarioek egindako lana.



ARGAZKIA: YAMAN

### Euskal Jaia Ixkibin

Eguraldi kaxkarrarekin baina festa giro ederrarekin ospatu zen Ixkibi kanpinoko euskal festaren bigarren edizioa.





ARGAZKIAK → 2010EKO EGUTEGIA

## Heldu den urteko egutegirako argazki aukeraketa egingen da aurten ere

San Martinetan argazki erakusketa egingen da

### Maidar ANSA

Lehengo urtean San Martinetan egin zen bezala, aurten ere argazki erakusketa bat antolatu nahi da. Bertatik argazki politenak aukeratu eta heldu den urterako kalendarioa egiteko asmoa dago berriaz ere. Horretarako, badakizue zuen argazkiak behar direla eta horiek prestatzen has-teko abisatu nahi izan dute garaiz.

Argazkiak zuek ateratakoak edo garai batekoak izan litezke, baina argazki bakarra aurkeztu ahalko da.



ARGAZKIA: ARANTXA ANSA

Egutegirako argazkiak ateratzen hasteko garaia heldu da.

Argazki hori sobre batean sartu zuen izenabizenekin eta argazkiaren izenburuarekin batera eta Kontsejura eraman beharko

duzue. Dena den, argazkiak biltzeko epea ez da oraindik irekiko eta abisu berriak izan arte zuen argazkia aukeratzeko joan.

### OHARRA

Egutegirako argazkiak biltzeko epea beranduago zabalduko da.

### Bizikleta igoera Ereñozutik Aranora

Pasa den irailaren 19an, larunbatarekin, Arano izan zuen helmuga Ereñozutik antolatutako bizikleta igoera batek.

### ORDU ETA ERDIKO BIDEA

Giro txarrak ez zituen zaleak beldurtu eta jende ugari bildu zen, bai bizikletaz joanda eta bai ikustera azaldukoak ere. 10:30ean atera ziren Hernaniko auzotik eta 12:00 alderako denak helmugara iritsiak ziren.

Ez dakigu bakarren bat bidean gelditu zen ala ez, baina ez zen harritzekoa izango. Igoera gogorraren ondoren, Kontsejun bazkaldu zuten denek giro bikainean.

**ITUREN** *Zure ametsia dutan*

**30 ETXEBIZITZA LIBRE ETA VPO-AK** **VIVIENDAS LIBRES Y V.P.O.**

*Elgorriagako bainuetxe berriaren ondoan*

Tel. 948 580 344  
[www.lindutx.com](http://www.lindutx.com)

*Zure etxea, zure bizitza. Te usatu, te irudi*

Informa zaitetz Baztan eta Ultzamako promozioetaz

## LEITZA

KULTURA → BERTSOLARITZA

# Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioa jokatu da urriaren 10ean

Bigarren final-laurdena izanen da

**Asier IMAZ**

Lau urtez zain egon ondotik, Bertsolari Txapelketa Nagusia asteburu honetan hasiko da, Zestoan (Gipuzkoa). Eta bigarren geldialdia herrian egingen du: urriaren 10ean kiroldegian, 17:30ean. Final-laurdeneko bigarren saioa izanen da eta sei bertsolari hauek ariko dira final-lurrekoetako txartelaren bila: Iñigo Olaetxea (Lesaka), Ainhoa Agirre-azaldegia (Elgeta-Zarautz, Gipuzkoa), Iñigo Manzidor *Mantxi* (Zarautz, Gipuzkoa), Ibon Ajuria (Gernika, Bizkaia), Xabier Sukia (Orio, Gipuzkoa) eta Etxahun Lekue (Larabetzu, Bizkaia).

Gai-jartzailea Txapelketa Nagusian lehen aldiz parte hartuko duen Fernando Anbustegi elizondarra izanen da.

**SARRERAK**

Sarrerak web orrian ([www.txapelketanagusia.eu](http://www.txapelketanagusia.eu)) eta Maimur liburudendan daude salgai.

## V. Pilota Txapelketa

Pilota Txapelketaren V. edizioak eman duena 57. orrialdean duzue irakurgai.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

## Bertso Eskola lanean

Bertso Eskolan ere ekin diote ikasturte berriari. Urtarrilean bertan, dozena batetako taldea osatu zen «bertsozale batzuen eskariz» eta ekainera arte astero bildu ziren Aurrera Elkartean. Denboraldi berrian ere jarraipena eman nahi izan diote Bertso Eskolari eta lanean hasi dira. Bat-batean trebatu, doinutegia zabaldu, bertso idatziak kantatu eta sortu... Denetarik ikasiko dute aurten ere.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

## 'Goenkale'ren 16. denboraldia hasi da

Leitzan aurkeztu zuten Goenkale telesailaren 16. denboraldia Peru-Harri Museoan. Konturatuko zinetenez, aurpegi berriekin hasi ditu atal berriak Goenkalek, eta horien artean, Xabier Perurena herriko gaztea dago. Aurreko denboraldietan bezala, Iñaki aitak ere hortxe segituko du.

## FLASH

### Kantu Jirarako hitzordua

Ikasturte berriarekin batera, hileroko legean Kantu Jira ere hasia da. Iraileko lehen hitzorduren ondotik, urriaren 10ean egingen dute hurrengo zita, aldi honetan, larunbatarekin. Ohi bezala, Aurrera Elkartean 19:00etan bilduko dira hainbat herritar, musikarien laguntzaz euskal kantak abesteko asmoz. Kantu Jiran elkartzen direnek herritar guztiei dei egin diete, abestea gustuko duenarentzat atek zabalik dituztela aipatuz.

### Barriola berriro kirofanoan

Berriz ere kirofanotik pasatu behar izan du Abel Barriolak. Duela bost hilabete eskuineko bealunean egin zuen leiotik errekuperatu ezinik ibili da azken hila-beteotan. Lehen eba-kuntzaren ondotik, Valentziara joan zen, errehabilitaziorako goi mailako kirolariaren zentro batera. Emaitzak, ordea, ez ziren espero bezalakoak izan eta hortaz, bigarren ebakuntza bat egin zioten hilaren 22an Gasteizen, eta ongi atera zen. Hala, hasiera batean urri berragertzea pentsatua bazuen ere, itzulerara atzeratu behar izan du. Lau t'erdiko eta Binakako Txapelketak ezin izango ditu jokatu eta ikusiko da buruzburukorako sendatzen den ala ez.

Iritzi bloga  
BERRIA  
www.ttipi.net

ZJ  
Zalain  
jatetxea - hostala  
14 logela bainu eta TBrekin  
Zalain auzoa z/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

BEINTZAKO  
OSTATUA  
☎ 948 45 00 14  
www.ostatuak.com  
1071 BEINTZALABAN  
ORBELA

ARTZAIN TXAKUR LEHIAKETA → ATXONDO (BIZKAIA)

## Euskal Herriko txapela ere jantzi dute Antonio Alustizak eta Ttikik

Asteburuan Nazioarteko Txapelketan aritzekoa zen

**Juana Mari SAIZAR**

Nafarroakoaz gain, Euskal Herriko txapela ere bereganatu du Antonio Alustiza artzainak aurtan, *Ttiki* txakurrarekin. Irailaren 20an Atxondon (Bizkaia) jokatzen zen Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketaren 43. edizioa, eta bederatzik bikoteren artean, garaipena Aresora etorri zen.

Gogoratu duzue, abuztuaren 30ean Nafarroako bere hamargarren txapela jantzi zuten Alustizak Uharte Arakilen. Nafarroako Txa-

pelketan askotan lortu izan du Euskal Herriko-  
ra joateko txartela, baina lehenengo aldia da irabazle atera dela.

Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko txapelketetan txapeldun eta azpitxapeldun izandakoek eta joan den urteko Euskal Herriko txapeldunak parte hartu zuten Atxondon, eta lehenengo seien artean 880 euro banatu zituzten. Hortaz aparte, beste sari batzuk ere lortu zituzten artzainek, hala nola, hobekien jantzitako artzainarena, artzain txakur onenarena...

Lerro hauek idazterakoan, Oñatira (Gipuzkoa) begira zegoen aresoarra, izan ere, bertan jokatzen zen Nazioarteko Txapelketa irailaren

27an. Hau idazterakoan, oraindik jokatzen gabea zen Nazioartekoa, eta beraz, hurrengo alean jarriko dugu emaitza.

### Olazabal berriz lanean

Mikel Olazabal aspaldian ez genuen frontoietan ikusia, esku arazoekin ibili delako eta hori da udan askotan ez ikusi izanaren arrazoia. Hala ere, San Mateotan parte hartu du Logroñon (Errioxa, Espainia) eta badirudi hobeto dagoe-la, oso itxura ona eman baitu.

Honekin batera, Unai Onsalo bera ere, gaizki ibili da eskuetatik baina itzuli da berriz pilotalekuetara, eta bost final jokatzen ditu. Ongi ari da berriro, ilusioz beterik.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Eskolako marmolean euskara

Eskolan zegoen marmol txuria hor zegoela denok bagenekien, baina seguraski ez zion inork erreparatu izango zer zen marmolean idatzita zegoena. Orain, ordea, eskolan egin diren lanei esker, agerian gelditu da eta 1922an Domingo Nazabal zenaren omenez idatzi zena ikus daiteke. Ameriketan ibili ondotik, Aresora etorri eta eskola eraikitzeko dirua eman zuen Nazabalek eta hori eskertzeko paratu zen oroigarri hau. Eta inork gutxik espero zuena euskaraz idatzitako zerbait topatzea izan da. Honela dio: «Ikastol abec egin dizkigun Nazabal Leiceboyenatar Domingo jaunari gaur ta beti zorr diyozka esker ugariyak Aresoko erriyak eta beñere etzayo artu behar mesede au. 1992».

edredoi fundak  
albornozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
maindireak  
mantelak  
kuxinak  
toailak

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Edredoi funda eta nordikoetan adituak

Tafalla, 13 • IRUÑEA  
948 230 634

# BAZTAN

**BESTAK** → GARTZAINGOAK URRIAREN 9TIK 12RA

## Pilarika Egunean akituko dira lau eguneko bestak

Urriaren 9an  
ortziralarekin  
botako dute  
txupinazoa

### ORTZIRALA 9 Bezpera

**17:00etan** txupinazoa eta ezkil-jotzea. **17:30etan** mus zimizte txapelketa. **22:00etan** Baztan-Zopak Trinketean. **00:00etan** dantzaldia KUPELA taldearekin. **06:00etan** zinger jatea.

### LARUNBATA 10 Haur eta Gazteen Eguna

**10:00etan** argisoinuak. **14:00etan** gazte bazkaria. **16:00etan** gazte jokoak. **16:30ean** Gorriti eta bere animaliak. **18:00etan** haurrendako txokolatada. **19:00etan** dantzaldia KALAKAK taldearekin. **20:00etan** triki-bertso

poteoa. **21:30ean** Mutildantzak. **22:00etan** patata tortilla jatea frontoian. **00:00etatik aitzinera** rock kontzertua: HURTO eta KOMANDO KASTAÑAREKIN. **Ondotik** dantzaldia GABEZIN taldearekin.

### IGANDEA 11 Herritarren Eguna

**10:00etan** argisoinuak. **12:00etan** Meza Nagusia. **14:00etan** zikiro jatea. **Ondotik** boletoen zozketa eta trofeo banaketa. **Segidan** dantzaldia MIKEL SALABERRIREKIN. **22:00etan** Mutildantzak. **22:30ean** luntxa. **Ondotik** gaupasa MIKEL SALABERRIREKIN.

### ASTELEHENA 12 Pilarika Eguna

**10:00etan** argisoinuak. **12:00etan** Meza Aixteiko ermitan. **Ondotik** luntxa. **19:00etatik**



ARGAZKIAK: ANA BELEN AZKARATE

Bestarako gogoia ongi pasatzeko ezinbertzeko osagaia izaten da, eta argazkietan ageri denez ez da horrelakorik falta Gartzainen.

#### OHARRA

Baztan-Zopetarako txartelak Fransene, Saioa eta Kortarixar ostatueta salgai daude urriaren 5era arte eta zikiro-jatekoak urriaren 6ra arte.

**ZAGVA**  
EHIZA ETA ARRANTZA  
Baztan-Elizondo  
948250371 948250372

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700  
948250371 inuñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

Carlos  
Garaikoetxea  
Etxenike  
abokatua  
Telefonoa: 948 581 488  
Mug: 630 364 818  
Santiago, 59 2º  
ELIZONDO

ANTXITONEA  
Trinketea  
Jatetxea - Ostaturia  
Hotela - Trinketea  
Menu Bereziak  
Braulio Iriarte karrila  
ELIZONDO  
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

HIRIGINTZA → ELIZONDO

# Foru Plaza itxuraberritzeko lanak heldu den urtean egitea espero du Udalak

Ideien lehiaketako sariak banatu dira

## TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, Udalak irail erdialdera banatu zituen Elizondoko Foru Plazaren urbanizaziorako ideia lehiaketako sariak. Guzira 44 proiektu aurkeztu ziren lehiaketara eta abuztuaren 1ean jakinarazi zituzten lehenbiziko hiru saridunak. Sariak, berriz, irailaren 16an banatu ziren, ekitaldi xume batean.

Hirugarren sariko 2.000 euroak *Stortoget* egitasmoa aurkeztu zuten Jabier Garcia Neila eta Irantzu Saez de Galdanok jaso zituzten. Bigarren sariko 3.000 euroak biltzera Maite Danborienalekaroztarra hurbildu zen. Ekitaldira agertu ezin izan zuten Idoia ahizparekin batera *Billantzikotik Zortzikora* proiektua aurkeztu zuten. Lehen sariaren irabazleak ere ezin izan zuten ekitaldira agertu. 6.000 euroko saria Koldo Fernandez, Corina Blanci eta Enrique Jerez hirukoteakeskuratu du, *Lurra BZT* proiektuarekin.

Ekitaldian, Virginia Aleman alkateak aipatu

## OHARRA

Irabazleek 6.000 euro jaso dituzte, bigarrenek 3.000 euro eta hirugarrenek 2.000 euro.

zuenek, «proiektu hau, aldaketa batzuekin egingen da». Hori bai, ideien lehiaketa hauek irabazi arren, Foru Plazaren zaharberritze eta moldaketa proiektuaren erredakzioa, Lekarozko Idoia eta Maider Danborienak osatzen duten Doarq estudioak egingen du.

## PROIEKTUA

Bertzeak bertze, Arandegia edo Kortea izeneko etxeak utzitako orubean eraikin berri bat egingen da eta aterpe bat ere izanen da ekitaldiak egiteko. Udalak legealdi honetarako zuen lehentasunetako bat zen Foru Plaza moldatzea. «Oraindik finantziatuzko proiektuak bilatu behar ditugu, baina lanak heldu den urtean egitea espero dugu», adierazi zuen alkateak.

Bertzelako lanak ere egiten ari dira Elizondon. Merkatu Plazan liburutegia egiteko lanak abendurako akituko dira –Hargibel Eraikuntzak enpresak egingen du– eta abudo Santiago eta Jai-



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO/ONDIKOL

Goiko argazkia sari banaketa ekitaldian ateratakoa da. Behekoa, berriz, lurrazpiko edukiontzia paratzeko obretan egina da.

me Urrutia karrak lotuko dituen plaza bat ere egingen da. Leku horretan, lurrazpiko edukiontzia jartzeko lanetan hasiak dira. Gainera, Foru Plazako aparkalekua desagertu denez, ibilgailuak uzteko bertze leku batzuren bila ari dira.

## Almandozko frontoia

Azaroaren 30a baino lehen, Almandozko Ederrena pilotalekua berritzeko lanak bukatuak egon beharko dute. Deialdira aurketutako 12 proposamenen artean, Udalak Elizondo-

ko JB Iturria eraikuntza enpresarena aukeratu du eta berari esleitu dizkio frontoia zaharberritzeko lanak, 255.647,27 eurotan zergak kontuan hartu gabe. Idoia eta Maite Danborien ahizpek egindakoa da proiektua.

**MENDI**  
ostata  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**SOULE**  
hileta artea  
Tfnoa. 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN

# BAZTAN

HERRIETAKO ESKOLAK → OSPAKIZUNAK

## Herrietako eskolen II. besta egingen da igandean Iruritan

Ibilaldia, jokoak, bazkaria eta dantzaldia izanen dira

### Maite OTEIZA

Bigarren urtez, Baztango herrietako eta Urdazubi-Zugarramurdi-ko eskolek euren besta ospatuko dute igandean, urriak 4. Hala, gan den urtean Amaiurren utzitako zapore onarekin, segida eman nahi zaio aurten Iruritan. Helburua eskoletako gurasoak harremanetan jartzea da, kontutan hartuz ikasle eta irakasleak elkarrekin lan egiten dutela urte guzian, eta bide batez, eskolak herrietako bizitzan duten garrantzia aldarrikatu nahi da.

Goizean ibilaldia egingen da Gartzain aldean, haur tikiak ibiltzeko eta haurren aulkiekin gateko modukoa da. Ondotik haur jokoak izanen dira, bazkaria auto-gestionatua –bakoitzak berea eramanen du– eta akitzeko, berriz, dantzaldia.

### Agur Lekarozko komentuari

Ortzegun honetan, urriak 1, makinak Leka-

rozko komentuko paretak botatzen hasiko dira. 114 urtetan goi mailako ikastetxea izatetik –familia onenetako semeek hortxe ikasi izan dute–, hondatua geldituzera pasatu da.

Euskal kulturaren ikerlari haundiak ere pasatu izan dira Lekaroztik, kaputxinoen artean. Orain, baina, kultura, hezkuntza eta ekonomia lantzeko eremu bihurtuko omen da. Baina erran bezala, ez dago garbi zer izanen ote den bertan egingen dena.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

### Susto galanta txopoak emandakoa

Elbeteko bestetako ekitaldi nagusietako bat txopo goratzea izaten da, jende andana erakartzen duena. Aurtengoak, ordea, ezusteko handia eman du. Izan ere, txopoa goratzen ari zirela erori egin zen, eta ezbeharrak eragin ez bazuen ere, arriskutsua izan zen. Bigarren saikeran tente gelditu zen. Bertzalde, urtero bestetan egiten den **zozketatako sarituak** ere jakinarazi dituzte: lehen saria 3.151 arentzat (lau lagunendako afaria); bigarrena 4.439 rentzat (GPSa edo kamara digitala) eta hirugarren saria 1.561 zenbakiarentzat (bi gasna).



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Nobedadeak Baztango Kirol Taldean

Berrikuntzekin hasiko du denboraldia Lindutx Baztan BKTk. Eskubaloiko Lehen Maila Nazionalen ari den emakumezkoen taldeak fitxaketa berriak egin ditu, baina aldi berean, urteetan taldean egon diren jokalaririk batzuek taldea utzi dute. Gabriella Horvath hungariarra eta Angel Dumitrita errumaniarra dira jokalaririk berriak. Biak lehen lehoan ariko dira. Gainera, joan den urtean fitxatu zen Talita Daiana brasildar atezainari kontratua berri dio taldeak. Bertzalde, jubenilen mailatik igota hiru jokalaririk ariko dira denboraldi honetan talde nagusian: Naiara Oteiza orozotarra eta Nerea eta Amaia Mortalena arraioztarrak.

Bajak ere izan dira taldean, hiru baztandarrenak eta bi atzerritarrenak: Josune Iturzaeta elizondarra eta Garazi Arretxea eta Ainara Unanua gartzaindarrak ez dira taldean izanen denboraldi honetan. Ildiko Valaczkai eta Kinga Toth hungariarrak ere ez. Bertzalde, 2009/2010 denboraldian ere, Lindutx Baztan eraikuntza enpresa izanen da BKTren babesle nagusia. Hitzarmena irailaren erdialdean sinatu zuten bi aldeek, BKTren ize-nean Belen Urrutia lehendakariak, eta Lindutx Baztanen izenean Aitor Nuñez, Xabier Iparragirre eta Iñaki Unanuak. Argazkia ordukoa da.



**suteia**

**igogailuen instalazioa**

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardurak hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

# BAZTAN-URDAZUBI

HIRIGINTZA → UDALA

## Hirigintza Plan berria egiteko 184.000 euro jasoko ditu Udalak

Plana egiteak  
230.000 euroko  
aurrekontua du

### TTIPI-TTAPA

Etorkizunean Baztan nolakoa izanen den zehaztuko duen Hirigintza Plana egiteko 184.000 euroko dirulaguntza jaso du Udalak, Nafarroako Gobernuaren eskutik. 230.000 euroko aurrekontua duen plana egiteko laguntza eskatu zion bere garaian Udalak Gobernuari, eta honek onartu egin du: gas-tuaren %80 subentzionatuko du.

Laguntza hiru urtetan bideratuko da: 36.800 euro 2010ean; 110.400 euro 2011n eta bertze 36.800 euro 2012an. Hain zuzen, urte horretan espero da Hirigintza Plana behin behineko onartzea.

### Kirikoketa Besta urriaren 24an

Aurten hamargarren aldiz Kirikoketa Besta egingen da urriaren 24an Arizkun. Ohi bezala, sagardo modu tradizionalan egingen da, XVIII. mendean egiten zen bezala. Horrekin batera, zikiro jatea ere egingen da, eta txalaparta joaldiak eta dantza herrikoiak ere izanen dira.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### 'Baztan mundu bat. Mundu anitz Baztanen'

Baztan mundu bat. Mundu anitz Baztanen lelopean giro ederrean joan zen irailaren 19an Bidelagun elkarteak antolatutako kultur ezberdinen arteko eguna.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEJUA

### Erremonte partida Iruritan

Erremontea Euskal-Jai frontoitik herrietara zabaltzeko eginahalean dabilta azken aldia, eta hori dela eta, Nafarroako Foru Komunitatea IV Erremonte Txapelketa-kopartida bat jokatu zuten argazkiko lau erremontistek irailaren 19an Iruritan. Ezkeretik hasita, urdinez Urrutia eta Urtasun iruritarra, Jose Jabier Elizaintzin epailea, gorriz Gaztelu eta Ezkurra eta Txuma Prim epailea ageri dira. Urdinentzat izan zen garaipena, 40-30 irabazita.

Eguneko ekitaldiei buruzko xehetasun gehiago hurrengo alean ematen ditugu. Antolatzaileek, bertzalde, animatzekeo deia egin dute.

### URDAZUBI

Zeharbideko lanak urrirako akituko dituzte

### TTIPI-TTAPA

«Lanen %67,8 egina dago eta lanak urrirako bukatzea espero dugu. Zirkulaziorako eta segurtasunerako hobekuntza handia izanen da, besta egun eta asteburuetan batez ere». Horrela adierazi zuen irailaren 22an Laura Alba Nafarroako Gobernuo Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako Kontseilariak, N-121Bko zeharbidean egiten ari diren lanetara egindako bisitan. Lan hauek bi helburu beteko dituztela ere aipatu zuen: trafikoa arindu eta oinezkoendako bideak egokitu. Azken urteotan, komertzioak inguruan izan duen garapena indartzeko, obrak beharrezkoak zirela ere nabarmendu zuen. Bide horretan, sei biribilgune eta oinezkoendako espaloiak egiten ari dira. Aduana aldetik pasatzea ere saihestuko da, by pass bat eraikiko baita.

Lanen aurrekontua 2.020.000 eurokoa da eta Herrilan Departamentuak 1.027.071 euro ordaindu ditu proiektua idazteko, ejekuziorako eta lan zuzendaritzarako. Udalak, bere aldetik, lan egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubiak hartzeko arduratu zuen. Kontseilariaren bisitan, Santiago Villares alkattea berekin izan zen.

**ARMUA JATETXEA**

T. 948 590 131  
Zuzendaritza eta zerbitzuak  
LIFAZUBI

**MENDIALDE JATETXEA**

T. 948 453 090  
N-121-B, 66 km  
L. AMAIUR

**Iñaki Alzueta margoak**

Plata dekoratiboa eta irakurketa • Dekorazioa: antzekak, berberak  
Fotokopiak • Berretsiak  
Lantzea eta laneratuak koloretan • Plaketa  
Hartu eta eguna amaitzen gaituzten da  
Tel.: 609 802 417 • Iru-Itipi etxea - Lanibar Auzoa • 31711 URDAZUBI  
ginuras.alzueta@yaho.es

# SENPERE

AZPIEGITURAK → KEZKA HERRITARREN ARTEAN

## Urriaren 17an manifestaldia egingen da herria zeharka lezakeen trenbidearen kontra

Trenbidea Larrun azpitik pasako litzateke

**Franck DOLOSOR**

RFF Frantziako trenbide konpainiak Helbarun auzoan eta Azkainen barna, Larrunaldean, egin nahi duen trenbide berriaren proiektuak kezka eta haserre handia sortu ditu. Froga buruilaren 22an ikusi zen, 500 lagun bildu zirelarik Inharrean hego Lapurdiko herri elkargoko hautetsiek prestatu zuten bilkura publikoan.

Senperealdeko hautetsiek diote herriek eta herritarrek bat egin behar dutela proiektu berriari kontra egiteko eta oraingo trenbidea hobetzea galdetzeko. Ikerketa independente batek erakutsi du 2050an bai-

zik ez dela betea izanen oraingo trenbidea. Gaurko egunean, tren bakar bat pasatzen da oren guziz eta Hendaia-ko geltokian bi miliu tonna merkantzia baizik ez dituzte garraiatzen urte guziz. Horrek erran nahi du tren ainitz gehiago pasa daitekeela oraino bide horretan eta bide berririk egitea ez dela hain beharrezkoa.

Trenbide berria egingen balitz Ahetzeko bidea, Donibane Lohizuneko bidea eta Lizardia inguruko eremuak zeharkatuko litzuke. Azkainen, Larrun azpitik pasako litzateke baina bi zubi egin beharko liriateke Bizkarzun, Esnaur eta Larrun mendien artean. Hori egingen balitz, Jean Louis Laduche Azkaineko auzapezak hitz eman du Natura 2000 egiturako presidentzia utziko lukeela. Momentuan, EZ



ARGAZKIA: AHT GELDITU PLATAFORMA

Hegoaldean bezala, Lapurdin barna pasako den trenbideak bazterrek kaltetuko ditu.

LGV NON erranaldia zizelkatzen ari dira Larrun mendiko iratzean. Munduko telebista guzietan agertuko den argazki hunkigarria egin nahi dute beren haserrea erakusteko.

Ondoko **TTIPI-TTAPAK** xehetasunak emanen ditu buruilaren 28an, Baionako su prefeturan proiektu hortaz egitekoa zen bilera garrantzitsuaz.

### Esne egileak kexu

Ipar Euskal Herri osoan bezala, Senpereko esne egile batzuk ere greban izan dira buruileko bigarren hamabortzaldian. Esnea saltzeko partez, lurrerat bota edo eskaini dute kitto. Laborariek salatu nahi izan dute esnetegi haundiek esne pinta bat 24 zentima bertzerik ez

dutela pagatzen eta hori ez dela aski esnea ekoizteko diren gastuen estaltzeko. Esne pinta 40 zentima pagatzea galdetzen dute esne egileek.

Urriaren 5ean Europako laborantza ministroek bilkura bat egingen dute gai hortaz eta gure laborariek hitzordu horren beha egoki dira orain. FDSEA laborantza sindikatako kide batzuek beren txartela bota dute ez baitira akort elkarte horrek izan duen jarrerarekin. Buruilaren 19an, esne egile senperetar batzuk Bruno Le Maire Frantziako laborantza ministroak Senperen duen udako etxe aitzinean manifestatu ziren. Protesta guziak baketsuki eta gizonki egin dituzte nahiz eta bertzerik aipatu den.

### FLASH

**Agenda**  
**Senperetik Senpererat** oroitzapen bildumaren presentatzea larunbatean, urriak 3, egingen da. Goizean, egileak liburuak sinatuko ditu Leku Ona liburu saltegia eta arratsaldean mintzaldia egingen da Ganxiki trinketan 16:30ean.



**1609ko uestezko sorginen auzien 400.** urtemugaren besta urriaren 4an ospatuko da. Animazioak eta bazkaria izanen dira eta arratsaldean Zirikolatz dantza taldekoen ikusgarria.

**Zirikolatz taldeak 30** urte betetzen baititu aurten bazkari handia egingen da urriaren 25an.

**m bentamiguel**  
denda, jatebidea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeratu

Tabakoa  
Likorrak  
Janaridenda  
Urdategia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

HERRIKO ETXEN  
EDENTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519  
Maitzen eta Yvonnepak

SARA

**ttipi-ttapa**  
info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58

**MONTXO OSTALUA**

Dantzarineatik  
2 km-tara

**TABAKO-DENDA  
ANZAN-BORDA · VRDAZVBI**  
Egunero irakia 10:30etik 02:30era



BESTAK → AZIENDA LEHIAKETA

# Beñat Zundak irabazi du behi gorrien txapelketa eta Geroari ustiapenak Holsteinena

Azienda lehiaketa berpizten ari da

**Xan HARRIAGUE**

Pixkanaka berpizten ari da herriko besten abereen lehiaketa. Urte kaxkarrak ezagutu eta gero, gero eta laborari gehiagok ekartzen dituzte haien animaliak. Aurten denbora hezea izan bazen ere, 15 bat izan dira behiak eta ardiak plazaraino ekartzeko lana hartu dutenak. Kritika errega da, baina herriko besten erdi erdian goizean 6:00-etan iratzarri behar dute kabalak prestatu eta herriera eramateko.

Holsteinetan, Geroari ustiapena izan da nagusi (Janbatit Indart, Felix Irigoien, Beñat Azkaraga eta Andiazabal senar-emazteak). Sari nagusia irabazi du, baita errape politen saria ere. Sailez sail hiru sari eraman ditu, Tatien Mendiondek bertze hainbertze, Garateko Bordako Leizagoien aita-semeek bertze bat eta Leheteiko ustiapenak bertze bat.

Behi gorrietan Bortxaineko Beñat Zundak irabazi du sari nagusia bi urteko behi batekin. Etor-kizun handiko behiaren saria, berriz, Anaxeneko Bordako Pettan Errandonearentzat izan da. Sai-



ARGAZKIA: STEPHANIE CUYOLLAA

Asteazkenarekin egin zen abereen lehiaketa.

lez sail, lehia orekatua izan da. Errandoneak bi sari eraman ditu eta Agustin Gorozurretak eta Harriztegi aita-semeek bertze bina. Battit Laborde, Zunda, eta Elordia-ko Mizel Elissaldeak sari bana eraman dute.

Zaldi eta ardietan txapelketa ez du hainbeste arrakastarik izan, baina animalia gutxi baziren ere batzuk aski ederrak ziren. Ardietan Hernain Bordako Panpi Berreaurk irabazi ditu sariak bai bildotsenak baita helduenak ere. Zaldie-

tan gauza bera gertatu da. Sari guziak Mikelte-giko Bordako Errandonea anaientzat izan dira.

**BESTEN GAINERATIKO TXAPELKETA**

Patxi Vila beratarrak irabazi du **Sara Korrika** lasterketa. 12 kilometro-en egiteko 39 minutu behar izan ditu. 141 lagunek parte hartu dute.

Bi urtetik behin egiten den **Artzain Zakur Txapelketa** Jean Paul Irikin eta **Xintxo** bere zakurrak irabazi dute. Gaineke Bentako Felix Irigoienek

laugarren finitu du.

**Pilotan**, berriz, Ellande Alfarok eta Paxkal Ezkurrak irabazi dute Pleana trinketeko saria. Finalean aise gainditu dituzte Sebastian Sorhouet eta Jean Claude Dermis, 40-26.

**FLASH**

**Esnearen greba**

Bi astez esnea botatzen eta ematen ibili ondotik, laborari esnearen greba gelditu dute eskatzen zutena onartu zaielako.



**Grupo Tanatorio Taldea**  
**IRACHE**  
Maldaerrea S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

<b>Bera</b> SAN JOSE BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Doneztebe</b> SAN PEDRO BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Elizondo</b> FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	948 58 19 59
<b>Leitza</b> LEITZAKO BEILATOKIA	948 63 74 04
<b>Lesaka</b> LESAKAKO TANATORIOA	948 63 74 04

## EZKONTZAK

**Ainhoa Ansa Zugarramurdi** eta **Xabier Cueto Martin**, Aranokoa eta Barakaldokoa irailaren 19an Aranon.  
**German Gallego Galindo** eta **M<sup>a</sup> Lourdes Montoia Cabello**, Doneztebekoa eta Mexikokoa, irailaren 19an Donezteben.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Asier Agesta Telletxea**, Doneztebekoa, ekainaren 17an.  
**Markel Pikabea Oiartzabal**, Doneztebekoa, uztailaren 21ean.  
**Ilargi Zumak Zafra Sanz**, Doneztebekoa, uztailaren 27an.  
**Iker Antzizar Irurueta**, Doneztebekoa, abuztuaren 11n.  
**Enaitz Isasi Arbilla**, Doneztebekoa, abuztuaren 15ean.  
**Jon Larunbe Zelaieta**, Doneztebekoa, abuztuaren 19an.  
**Janitz Iriarte Iturbide**, Igantzikoa, irailaren 9an.  
**Ekhi Rojo Rodriguez**, Lesakakoa, irailaren 19an.  
**Aiora Alzuyet Oyarzabal**, Urdazubikoa, abuztuaren 2an.  
**Mani Vela Barneix**, Sarakoa, irailaren 12an.  
**Aña St Martin**, Sarakoa, irailaren 5ean.  
**Margo Mondragon Fagaze**, Sarakoa, irailaren 2an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Valeriano Santxotena Bidegain**, Arizkungoa, irailaren 10ean, 82 urte.  
**Lucio Habans Barrenetxe**, Elizondokoa, irailaren 10ean, 86 urte.  
**Catalina Zestau Zestau**, Leitzakoa, irailaren 12an, 73 urte.  
**Mikel Petrarena Azpiazu**, Iturengoa, irailaren 15ean, 72 urte.  
**M<sup>a</sup> Josefa Irigoien Agirre**, Lekarozkoa, irailaren 15ean, 64 urte.  
**Inaxio Zabaleta Lizarraga**, Leitzakoa, irailaren 15ean, 90 urte.  
**Jose Manuel Erauskin Larrea**, Elizondon, irailaren 17an, 69 urte.  
**Lucia Telletxea Telletxea**, Lesakakoa, irailaren 19an, 77 urte.  
**Kontxa Gerra Urtxegi**, Igantzikoa, irailaren 19an, 85 urte.  
**Ignacia Alduntzin Sagastibeltza**, Leitzakoa, irailaren 21ean, 96 urte.  
**Agustina Albistur Mindegia**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 21ean, 98 urte.  
**Maria Salaberria Sara**, Arantzakoa, irailaren 22an, 82 urte.



### Mikel PETRIRENA AZPIAZU

*Gure esker ona Partzuergoari emandako denboragatik.  
Zure umore ona gogoan izanen dugu.*

**BERTIZ PARTZUERGO  
TURISTIKOKO KIDEAK**



### Kontxa GUERRA URTXEGI

*Igantzín, 2009ko irailaren 19an*

*Bizidunok utzi gaituzu beste maiteekin zaitex orain elkartu izanex beti itxaropentsu eta ez ezazu ahaztu gure bihotzetan duzula gordeleku.*

**ZURE FAMILIA**

**Rekordatorioak egiten ditugu**



*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*

**KULTURKARI**  
Andutzeta 12, Etxalar  
Tfnoa: 948 63 54 58

HERRI KIROLAK → ZAZPI HERRIALDEEN TXAPELKETA

# Seigarren urtez segidan Nafarroa txapeldun zazpi herrialdeen lehian

Lehenbiziko postua lau kiroletan lortu du Nafarroak

## TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Euskal Herrian jokatzeko den herri kirol txapelketarik haundiena Nafarroak irabazi du aurten ere. Bera zen favoritoa eta ez zuen huts egin. Zazpi Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketa jokatu zen irailaren 12an Donezteben, eta 60 puntu lortuta jantzi zuen txapela Nafarroak, 2000tik honat berderatzigarrena. Gipuzkoa sailkatu zen bigarren (55 puntu), Bizkaia hirugarren (50 puntu), Lapurdi laugarren (44 puntu), Araba bosgarren (23 puntu), Nafarroa Beherea seigarren (20 puntu) eta Zuberoa zazpigarren (13 puntu).

150 kirolari inguruk parte hartu zuten txapelketaren 21. edizioan, eta hamar kiroletan aritu ziren: txokorrak, ingudea, lastoa, harri-jasotzea, txingak, orga-jokoa, zakulariak, arpana, aizkora eta sokatira. Horietatik lau kiroletan lehenbiziko postua eskuratu zuen Nafarroak (lasto-altxatzen, arpanean, aizkora eta sokatiran); bigarren postua bortz kiroletan lortu zuen (txokor-biltzen, ingude-jasotzen, harri-jasotzen, txinga-eramatzen eta zaku-eramate lasterketan), eta bosgarren postu bat (orga jokoa). Eskualdeko kirolarien partehartzea zabala izan zen.



ARGAZIAK: KOLDO ALDUNTZIN ETA LEGARRA

Amaiurko tiratzaileak eta Karlos Sein igantziarra izan ziren Nafarroako taldeari zazpina puntu eman zizkioten eskualdeko kirolariak. Erdian ezkerretara arpanean txapeldun izan ziren Barberena anaia ultzamarrak. Beheko argazkian Nafarroarekin aritu ziren kirolariak.

**Txokorrak biltzen** Fernando Etxegarai beratarak ordezkatu zuen Nafarroako taldea, eta bigarren izan zen. 50 txokor biltzeko 6:35eko denbora egin zuen.

**Txingak eramatzen** ere eskualdeko kirolari

bat aritu zen: Mielanjel Sukuntza leitzarra. 50 kiloko txingak esku bantatu zituela, 19 plaza, plaza erdia eta 5,85 metro egin zituen eta bigarrena izan zen.

**Harri-jasotzen** ere bigarren postua lortu

zuen Nafarroak Unai Bertiz sunbildararekin. 100 kiloko harriari 34 jasoaldi eman zizkion.

Karlos Sein igantziarra eman zion Nafarroari lehenbiziko garai-pena. Bi minutuko tartean, **lasto-jasotzen** 20

## DATUA

# 150

### KIROLARI

aritu ziren irailaren 12an Donezteben jokatu zen jaialdi haundian.

altxaldi egin zituen Seinnek eta bertze bat gehiago egiteko 7" 49 zentimetro behar izan zuen.

**Ingudearekin** Joakin Aioroa iturendarra txukun ibili zen. Garai-pena lortzear izan zen, txapeldunak adina jasoaldi egin zizkiolako 18 kiloko ingudeari -94 altxaldi, minutu eta erdiko denboran-, baina azkenean, bigarren gelditu zen.

**Sokatiran**, azkenik, Nafarroako taldean aritu zirenak Amaiurko tiratzaileak izan ziren. Joxe Urrutiaren mutilek lan bikaina egin eta txapela eskuratu zuten. Hauek izan ziren goma gainean ibili zirenak: Fermin Iparragirre, Toni Uharte, Oskar Telletxea, Joxeantonio Iriarte, Juan Mari Irigoien, Joxemi Bengoetxea, Esteban Mendiburu eta Ezekiel Martin.

Gainerakoan, txokor-biltzen, txinga-eramatzen, harri-jasotzen eta orga-jokoa Gipuzkoa izan zela bizkorrena; zaku-eramate lasterketa Lapurdik irabazi zuen; ingudearekin Bizkaiak; eta erran bezala, lasto-altxatzen, arpanean, aizkora eta sokatiran Nafarroa izan zen garaile.

Hasiera indartsua egin zuen Luismari Belarra doneztebarrak aizkora. 1996an hasi zen, eta hurrengo urtean, bi txapel eskuratu zituen: Nafarroako Bigarren

Mailakoa eta Euskadiko Hirugarren Mailakoa. Baina lanarekin ezin, eta lau urtez aizkora aritu gabe egon zen, 2003an berriz hasi zen arte. Geroztik Bigarren

Mailan ibili da, goi-goian, baina aurten aizkora uztea erabaki du. Entrenatzeko denborarik ez eta familiarekin egoteko denbora gehiago nahi duelakoz hartu du erabakia.

**Luismari BELARRA** | Doneztebeko aizkolaria

# «Lana dela-eta beti gaizki ibili naiz eta horregatik sufritu egin dut»

## TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

«Pena». Horixe aitortu digu Luismari Belarra (Doneztebe, 1971) aizkolaria. Urteetan aizkora ibili ondotik, uztea erabaki du eta gustuko zerbait uzteak beti sortzen du pena.

25 urte zituela hasi zen aizkora. Martin Mindegia izan zuen erakusle eta urte hauetan guztietan gogor eta gogoz egin du lana. Bere lanaren fruituak ere jaso ditu. Hala, aizkora hasi eta hurrengo urtean, 1997an, Nafarroako Bigarren Mailako eta Euskadiko Hirugarren Mailako txapeldun izan zen. Maila Nagusian ere hainbat urtetan aritutakoa da.

Baina beti lana izan du gibeletik tiraka, aizkora nahia adina aritzea galarazi dio. Eta horregatik erabaki zuen Maila Nagusian zegoela, aizkora hasi eta bi urtera, uztea. «Lanagatik ezin ailegatuz ibiltzen nintzen. Frantziara joan nintzen mendira lanera eta dena batera ezin nuen. Zerbait utzi beharra zegoen eta aizkora utzi nuen». Lau urteren ondotik, halere, berriz plazetara agertu zen, 2003an: «Hurbilago hasi nintzen lanean, eta afizioa betidanik izan dudanez... Baina lana dela-eta beti gaizki ibili naiz, ezin ailegatuz, eta horregatik sufritu egin dut».



UTZITAKO ARGAZKIA

Luismari Belarra.

Eskabazio enpresa batean egiten du lan Belarrak, eta egunean etxetik kanpo 13-14 ordu pasatzea, dudarik ez dago, oztopoa dela entrenamenduak egiteko: «20:00etan ailegatu etxera, egurra paratu eta entrenatzen hasterako 21:00, dutxatu eta afaltzen hasterako 23:00. Eta biharamunean 6:00etan ernatu behar», azaldu digu doneztebarrak. Gelditu gabe harat-honat ibiltzeak «nekatu» eta familiarekin gehiago egoteko nahiak

**ARRIAREKIN APUSTUA**  
«Arriarekin egindako apustua irabazi nueneko pozgarria izan zen. Kanaerdiko alde eman zidan eta bi minutu eta zortzi segundoko alde ateratu nion eta gustura gelditu nintzen»

aizkora uztera behartu dute.

## MOMENTU GOGOANGARRIAK

Sufrimenduak bai, baina momentu pozgarriak ere ugari. Horieta bat aukeratzeko eskatuta berehala eman digu erantzuna: «Arriarekin egindako apustua irabazi nueneko». Sorterrian jokatu zuen apustua eta kanaerdiko alde eman zion Arriak; honek 12 ebaki behar izan zituen eta 11 Belarrak. Eta bi minutu eta zortzi se-

gundoko alde ateratu zion: «gustura gelditu nintzen». Nafarroako Bigarren Maila irabazi eta Maila Nagusira pasatzea ere «momentu polita» izan zela gaineratu digu. Plazaren bat aukeratzeko, berriz, etxekoa, «Doneztebekoa».

## 'KIROL GOGORRA ETA GARESTIA'

Entrenamendu aunitz eskatzen duen kirola da aizkora, eta Belarraren kasuan, «astean hiru entrenamendu egin eta mendian ibiltzen nintzen». Kirol garestia ere bada: «laguntza haundia behar da», dio Doneztebekoak.

Bertze aizkolariei begira jarrita, berriz, «kontrario gogorak aunitz» izan dituela nabarmendu digu, eta gustuko baten bat nabarmentzekotan hauxe aipatu digu: «Larretxearen kolpea eta Mindegiaren teknika».

## 'ORAINGOZ' AGUR AIZKORARI

Hainbertze plaza, txapelketa eta oroitzapenen ondotik, 38 urterekin aizkora uztea erabaki du. Dena den, «momentuko erabakia» dela adierazi digu. «Agian berriz hasiko naizela? Ba ez dakit! Momentuan behinik behin utzi egin dut». Aukera ez du baztertu, behintzat.

PILOTA → LEITZAKO TXAPELKETA

# Helduetan Onsalok eta Iriartek irabazi dute Leitzako V. Pilota Txapelketa

Idoate eta Uzkuduni 22-15 irabazi zieten finalean

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Urtetik urtera gero eta oihartzun handiagoa hartzen ari den Leitzako Pilota Txapelketa eman du aurtengoa.

Aurrera Pilota Elkar-tearen ekimenez, abuztu hondarrean hasita alebin, infantil, kadete, jubenil eta helduen hainbat partida jokatu dira azken asteetan eta pilotazaleek izan dute non gozatua. Bitarte horretan, Euskal Herriko eta Errioxako hainbat pilo-



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

Pilota txapelketako finalistak irailaren 13an jokatu ziren finalen ondotik.

tari pasa dira Amazabal pilotalekutik. Hala bada, irailaren 13an, finala jokatu ziren, bortz

guztira.

**Alebinetan**, Barriola eta Bakaikoa izan ziren txapelkunak, Egigu-

ren eta Petiteri 18-10 irabazita.

**Infantiletan**, lehia estuagoa izan zen eta

18-17ko markagailuarekin bukatu zen partida. Agirre eta Iruretagoiena, Telletxea eta Iribarria bikoteari gailendu zitzaizkien.

**Kadeteen mailan**, berriz, 7 tantorekin gelditu ziren Zestau eta Beraza. 22-7 Xabier Jaurarena eta Jakak irabazi zuten.

**Jubeniletan**, Ansoategi eta Iturriaga izan ziren txapelkunak. 22-10 gailendu zitzaizkien Dorronsoro eta Pazosi.

**Helduen kategorian**, azkenik, txapela Leitzaldean gelditu zen. Onsalok aresoarrak eta Iriarte leitzarrak 22-15 irabazi zieten Idoate eta Uzkudun pilotariei.

PILOTA → IGANTZIKO BILTOKI ELKARTEA

# Unai Telletxea eta Joseba Aldabe igantziarrak etorkizuneko bi pilotari

Zangotzako eta Donostiako txapelak eskuratu dituzte

TTIPI-TTAPA

Unai Telletxea eta Joseba Aldabek osatutako Igantziko Biltokiko infantil mailako pilotari bikoteak uda ederra egin du. Zangotzako txapelketan bikain ibili ziren eta zazpi partida bata bertzearen ondotik irabazita, txapel handia jantzi zuten. Txapelketa Leitzako

Aurrerako Xabi eta Ibairi 18-12 irabaziz hasi zuten; Txaurtako Espelosin eta Azpirozi ere irabazi zieten, 18-3; Oberenako Zamora eta Andueza izan zituzten gero arerio, eta tantu bakarrean utzi zituzten; 4 tantutan utzi zituzten Irunberriko Carlos eta Ancin eta hutsean Ander eta Iker.

Finalerdian 18-11 irabazi zieten Oberenako Espinal eta Anduezari. Honela, irailaren 6ko finalerako txartela eskuratu zuten eta finalean,

lehen jardunaldiko bikote bera izan zuten kontrario, Leitzako Xabi eta Ibairi. Finalak ezberdinak izaten omen dira, baina igantziarrek finalean ere ez zuten hutsik egin eta 18-11 irabazi zieten leitzarrei.

**DONOSTIAKO ASTE NAGUSIAN ERE TXAPELDUN**

Donostiako Aste Nagusiko txapelketan ere Unai Telletxea eta Joseba Aldabek txapela jantzi zuten. Finalean 18-7 irabazi zieten Hernaniko



UTZITAKO ARGAZKIA

Telletxea eta Aldabe Zangotzako txapela soinean.

Labaka eta Erasuni. Aipatzekoa da Unai Telletxeak Leitzako txapelketan ere jokatu duela, Ordiziako Iker Iribarriarekin

bikote eginez. Finalean urduri aritu ziren eta tantu bakarragatik galdu zuten Agirre eta Iruretagoienaren kontra, 17-18.

## urriak 2 - urriak 15

Informazioa bidaltzeko: [info@titi.net](mailto:info@titi.net) edo 948 63 54 58**Bertsokak**

LEITZA | 2009.10.10

**Euskal Herriko bertsolari txapelketako saioa**

Eskualdean saio bakarra egingen du lau urtetik behin jokatzeko den txapelketak. Amazabalaren 17:30ean argazkiko bertsolariak ariko dira.

**Ospakizunak**

BERA | 2009.10.03

**VI. Mugarik Gabe Topaketa Ekuadorri eskainia**

Munduko jokuak, futbito txapelketako finalak, bertsolariak, dantza saioak, dastaketak eta dantzaldia, etorkinak gizarteratzeko helburuaz egiten den jaialdian.

**Antzerkia**

SARA | 2009.10.02

**«Herioa eta dontzeila» antzeslana Lur Berrin**

Ariel Dorfman idazle txiletarrak idatzitako eleberrian oinarrituz Fito Rodriguezek euskaratutako antzeslana eskainiko dute 20:30ean, ikastolak antolatuta.

kanpainaren barnean.

**Feriak**

DONEZTEBE

**Komertziantek karrikara**

Urriaren 10 eta 11n azoka berezia antolatuta du Doneztebarrak elkarteak. Xehetasunak 17. orrian.

**Tailerrak**

LESAKA

**Memoriaren tailerra**

Urriaren 7tik abenduaren 23ra emanen du Ramoni Ordoki psikologoak Jubilatuen Elkartearen. Asteazkenean 16:00etatik 17:30era.

**Bestak**

ANIZ

**Arrosarioko Amabirjinaren bestak**

Urriaren 3tik 5era.

GARTZAIN

**Pilarika bestak**

Urriaren 9tik 12ra. Xehetasunak 44. orrian.

**Ospakizunak**

ZUBIETA

**Euskararen Eguna**

Urriaren 3an artisau-feria, herri kirolak, bazkaria eta euskal kantak. Xehetasunak 19. orrian.

BEINTZA-LABAIEN

**Urriroko Besta**

Urriaren 3an artisau-feria, herri kirolak, bazkaria eta euskal kantak. Xehetasunak 20. orrian.

BERA

**Mugarik Gabe Topaketa****Erakusketak**

URDAZUBI

**Gaur egungo pintura**

Urte osoan, gaur egungo pinturari buruzko erakusketa. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monastegian.

BERTIZ

**Diana Iniestaren margo erakusketa**

Urriaren 1etik 30era, Diana Iniestaren "Como árboles (Zuhaitzak bezala)" margo erakusketa Natur Parkean. Lan egunetan 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 17:30era. Asteburu eta besta egunetan 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era.

BAZTAN

**«Bertan» Argazki lehiaketako lanak**

Urriaren 8tik 29ra, komertzianteen elkarteak antolatutako argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai iArizkunenean.

SARA

**Larrungo Koloreak Lur Berri gelan**

Buruilaren 19tik urriaren 4ra, «Larrungo koloreak» margo erakusketa 25 artisten lanak ikusgai daude Lur Berrin. Astegunetik 15:00etatik 19:00etara eta asteburuan 10:00etatik 12:00etara.

**Deialdiak**

DONEZTEBE

**Faxismoaren kontrako manifestazioa**

Urriaren 10ean abiatuko da Merkatuko Plazatik, 18:30ean.

Baztan-Bidasoako faxismoaren aurkako taldeak deitua.

**Kontzertuak**

ARANTZA

**Tomania taldea Udazkeneko Biran**

Urriaren 17an Tomania folk taldeak kontzertua eskainiko du frontoian 20:00etan, Udazkeneko Biraren barnean.

ELIZONDO

**Zarama taldea eta****Kaskezur Lurren**

Urriaren 3an Zarama «birziklatuak» kontzertua eskainiko du Lur dantzalekuan. 23:30ean hasiko da jaialdia Kaskezur taldearekin.

LESAKA

**Zura taldea**

Urriaren 3an kontzertua eskaini du Zura taldeak Onin erreka gainean (Eskriboneako arkupean, euria egingen balu) 22:00etan. Matrikulazio

## PROPOSAMENA

ELIZONDO

**Zarama taldea urriaren 3an Lur dantzalekuan**

Zarama birziklatuaren biraren barnean, rock talde historikoaren doinu ezagunak («Iñaki, zer urrun dago Kameron» edo "Bihotzak sutan") aditzeko aukera izanen da Lur diskoteketan. Sarrerak aitzinetik 14 euroan salgai daude Elizondoko Antxitonea eta Txokoton eta Lesakako Atxaspin eta takilan 16 euroan. Kaskezur taldeak joko du aitzinetik.



**Urriaren 3an** seigarren aldiz ospatuko da etorkinak eskualdean gizarteratzeko eta herrialde bakoitzaren kultura hemen ere ezagutzeko topaketa.

**LEITZA**

**Aurrera elkartaren hirugarren pesta**

**Urriaren 3an** egun osoko egitarau antolatu dute: diana, haurrentzako ekitaldiak eta pilota, dantza saioa, poteoa, bazkaria, Ingurutxo, kalejira Incansables txarngarekin, luntxa eta dantzaldia Agerraldearekin.

**IRURITA**

**Herrietako eskolen besta**

**Urriaren 4ean** Baztango herrietako eta Urdazubi-Zugarra-murdiko eskolek bere besta egingen dute.

**Lehiaketak**

**LEITZA**

**Literatur lehiaketa antolatu du ALKEK**

**Urriaren 31** baino lehen aurkeztu behar dira narrazio eta ipuin lehiaketa eta bertso-paper lehiaketarako lanak.

**Mendi ateraldiak**

**BERA**

**Larun Ttiki Lizarietarat**

**Urriaren 11n** lamoteneatik Lizaietara aterako da Labiaga ikastolako Larun Ttiki mendi taldea, 9:30ean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



Azken egunak Gandiagarekin

**JOXE AZURMENDI**

Elkar, 2009

**B**ere libururik pertsonalena ondu du Joxe Azurmendik. Abiapuntua ez da edonolakoa: Bitoriano Gandiaga, poeta paregabea, Arantzazun fraidekide izana eta lagun bihotzekoa hiltzera doa. Hari bisitan joan eta, adiskidearen bizitza, lanak, izaera, heziera eta sinesmenak hasi da errepasatzen, eta bere buruarenak ere bai. Gandiagaren obraren azterketa gisa hasitakoak bakarkako meditazio sorta bat dakar berarekin: zer den gaur, XXI. mendean, sinestea; zertan sinesten edo ez-sinesten dugun; zeri deritzogun Jainkoa, hura baiesteko nahiz ukatzeko. Azurmendik ohi duenez, milaka irakurketa dokumentazioa, sentiberatasun erne baten argia eta adimen zorrotz baten finezia elkartzen ditu, landutako gaiei hainbat jirabira eman eta ikuspegi berritzaile bat eskaintzeko, ez eztabaida bukatuta jo nahi duen maisuaren moduan, estereotipo zahar eta konbentzionalismo berriak alde batera utzita, bakoitzak pentsa dezan zein den bizitzaren aurreko bere jarrera, bere egia, bere aukera.

**Musika**



Payola

**BERRI TXARRAK**

Roadrunners Records, 2009

**L**ekunberriko hirukotea rock independientearen larnearn ezinbertzeko taldea bihurtu da. Euskal Herrian aspaldian ezagunak badira ere, Amerika, Europa eta Asian barna ere ibili dira, "Jaio.Musika.Hil" diska aurkezteko hiru urteko makrojira batekin. Japonian 2008ko Fujirock jaialdia ireki zuten eta Estatu Batuak, Nikaragua edo Taiwanen izan ziren, bertzeak bertze. European ere hainbatetan ibili dira, horrietako batean Rise Against eta A Wilhelm Scream taldeen gonbidatu gisara. 2007an "Zertarako amestu" ikusentzuneak argitaratu zuten, zinearen eta musikaren hizkuntzak uztartzen zituen rock dokumentala. Orain, «Payola» seigarren diskoa eskaintzen du Berri Txarrak taldeak, Chicagoko Electrical Audio estudioetan grabatua Steve Albini soinu-ingeniari ezagunaren (Nirvana, Pixies, Neurosis...) aginduetara eta Rise Against taldeko Tim McIlrath kantariaren kolaborazioarekin. Soinu gordin, beldurrik gabear... eskaintzen dute.

**Internet**



Jabier Mariezkurrena kamioi gidaria

**TRUCKNAVARRA.COM**

**D**oneztebeto Jabier Mariezkurrena kamioi gidaria eta Ederki tallerreko eskuderiak urte batzuk daramazki Europako zirkuituetan, kamioi karrertan. Joan den urtean Espainiako txapelketan bigarren izan ziren eta Europako txapelketan ere puntuak biltzen hasiak dira azken bi urtetan. Orain, Truck Navarra Competición taldeak bere web-orria ere badu. Sarrerako orrian, kamioiaren eta txapelketako hurrengo ateraldiaren berri ematen dute eta hainbat sarbide dituzte. Batean, taldea osatzen duten kideen berri ematen da, argazki eta guzi; Txapelketaren tartean, egutegia eta Europako nahiz Espainiako txapelketako sailkapenak ageri dira; argazkiek eta bideoek ere bere tarte dute, ez baitute alferrik HDko bi kamera kamioian eta taldeko kideak zirkuituetan sakabanatuak. Albisteak eta Harremanetarako atalekin osatzen du Doneztebeto taldeak webgune txukuna.

**Nire aukera**



**Sandra LEGASA**

Lesakako Oreka dietetika denda

**Astia dudanean lasai egon eta herri inguruan pasiatzea gustatzen zait**

**D**uela urte terdi, 2008ko martxoan ireki zuen dietetika denda Sandra Legasa gazte lesakarrak eta horrek denbora libre aunitz kendu dio. Astia duenean «famiarekin egon, pasiatzera ateri, kirola egin...» gustatzen zaio. Joan den urtean kiroldegian spinning eta aerobic egiten aritu bazen ere, «aurten bietaiko bat aukeratu behar ko dut». Amarekin batera gustura ibiltzen da herri inguruan, ez baitu kanpoko mendietara ateratzeko ohiturarik. Asteburutan tarteka kanpoan otorduren bat egiten du, «baina orain guttiago, etxean gehienetan». Dietista izaki, «batzutan begiratzen diot elikadura egokiari, baina bertzetan ez». Autonomia denetik denbora guttiago badu ere, «oporretan lasai ibiltzea gustatzen zait. Tunezen ibili naiz, baina normalean hondartza duten lekuetara joaten naiz». Irakurtzeko edo zinera joateko ez du aparteko jorarik. Hori bai, Internet erabiltzen du, «lanerako behar ditudan gauzetarako».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, trastelekua eta ganbara. Berritua. ☎657 715243/657 799953.

**ETXALAR.** Zaharberritzeko baserria salgai. Lur eremuarekin, ura eta argiarekin. ☎661 121540.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuak bere lurra-  
rekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**DONEZTEBE.** 2 pisu, 2 eta 3 logelakoak, eta etxea egiteko lur eremua salgai. ☎607 978656.

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lurarekin. ☎943217817.

**MALAGA.** Pisua salgai. 3 logela, aire girotua, moblezatua. Lehenengo solairuan. Carrefourren ondoan. Premiazkoa. Prezioa: 100.000 euro (negoziazagarria). ☎647 156370.

**ETXALAR.** Lizaietako parajea zaharberritzeko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

**DONEZTEBE.** Zazpigarutze 1-en pisua eta garajea salgai. Pisua hirugarren solairuan, igogailuarekin, moblezatua eta estreinatua gabea. ☎650 038024.

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldia balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute.

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845.

**DONEZTEBE**  
Zazpigarutze plazan  
115 m<sup>2</sup>ko pisua salgai.  
3 logela, 2 bainugela  
eta trastelekua. Eguzkitua  
eta estreinatua gabea.  
630 948271

**BERA**  
MARTZAN DAGOEN  
ILSAPARRIGI BAT  
ERRENTAN EMATEKO  
675 716121

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**DONEZTEBE.** Pisua errentan emateko. ☎699 798207.

**LESAKA.** Herri erdian da-

goen pisu hutsa errentan emateko. ☎696 127601.

**LESAKA.** Astelehenetik ortziralera logelak sukaldiarekin errentan emateko. ☎678 855056.

**ETXALAR.** Etxebizitza errentan emateko. Bista ederrak eta prezio egokia. ☎680 538502.

**DONEZTEBE.** Herrigunean, pisua errentan emateko. 3 logela, 2 logela eta kanpo aldera. ☎619 221318.

**BERA.** Agerra auzoan pisu moblezatua errentan emateko. ☎620 203906.

**ELGORRIAGA.** Pisua errentan emateko, ganbara eta baratzarekin. ☎630 520761.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**BERA.** Neska batek pisua errentan hartuko luke. ☎652 758187.

**ETXEBIZITZAK**  
konpartitu

**DONOSTIA.** Neska ikasle bat nahi da pisua konpartitzeko. Unibertsitate 5-10 minutura dago. Hilabetean 186 euro. ☎678 309025.

**GARAJEAK / LOKALAK**  
salgai

**LESAKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur, 43. ☎659 609678.

**ELIZONDO.** 60 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Denda edo bulegorako prest. ☎675 433415.

**LESAKA.** Herri erdian garaje-marra errentan emateko. ☎696 127601.

**LANA**  
eskaintzak

**BERA.** Ibardingo benta batean biltegi aritzeko mutil bat behar da. ☎948 630734.

**SARA.** Urtxola jatetxeko ostatuan asteburuetan lan egiteko norbait behar da. Esperientziaduna. ☎686 561525/(0033) 559542831.

**IBARDIN.** Beola Etxeko supermerkatuan lanaldi osoan aritzeko langilea behar da. ☎948 630709.

**IBARDIN.** Beola Etxeko jatetxean lan egiteko zerbitzaria behar da, egunean lau orduz. ☎948 630709.

**BAZTAN.** 20-35 urte bitarteko almageneroa behar da, esperientziaduna. Bidali curriculumak: [almacenerobaztan@hotmail.com](mailto:almacenerobaztan@hotmail.com).

**DONEZTEBE.** Bixen ostatuan asteburuetan sukaldian aritzeko langilea behar da. ☎948 450383.

**IRAKASKUNTZA**  
eskariak

**Euskara irakasle** partikularra behar da goizez klaseak emateko, astean 2-3 egunez. ☎647 712676.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(irailaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 35,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,125 € kilo. (-0,045)

**Zerramak:**  
0,460€ Kg/bizirik. (=)



**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. **Kanal Extra** 3,86 (+0,03)

**1.koa** 3,56 (+0,03)  
**2.koa** 3,86 (+0,03)

**Urruxak:** €/kg. **Kanal Extra** 3,96 (+0,03)

**1.koa** 3,66 (+0,03)  
**2.koa** 2,96 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,85/2,95  
Zaldi-behorrak: 1,55/1,75  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,80/8,60  
8-10 kilokoak: 6,50/6,90



**MOTORRA**  
tailerrak

egondakoa eta egoera onean. ☎686 316397.

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**Opel Corsa** 1.700 turbo diesela salgai. NA-AU. 1.200€. ☎667 766262.

**Onda TRX** 450 quada salgai, 2007koa. Egoera onean. 3.500 euro. ☎610 509177.

**Citroen Xsara** 1.9 D autoa salgai. 98.000 kilometro. 2003koa. Kanpotik eta barrenetik egoera onean, beti garajejan egondakoa. Haize egokitua. ☎672 394607.

**MOTORRA**  
salerosketak

**Nissan Terrano II** 2.7 TDI salgai. 1997koa. Egoera ona. ☎629 126185.

**Suzuki Grand Vitara** 2.0 TD salgai. 2005ekoa, egoera onean, ITV maitezean pasatua. 30.000 km. ☎639 156105.

**Suzuki Vitara** JLX gasolina salgai. ☎620 036553.

**Suzuki GSR** 600 motorra salgai. 2007koa. 12.400 km. Paperetan 34 zaldira limitatuta, zentralita originala eta limitatzailearekin. Garajejan



**Opel Astra** 1.7 DTI autoa salgai. 9 urte. Kanpotik eta barrenetik egoera onean, beti garajejan egondakoa. Haize egokitua. Gutti kontsumitzen du. ☎617 792401.

**ANIMALIAK**  
salerosketak

Vietnamgo arrazako **zerrikumeak** salgai. ☎667 766262.

Basurde ehizerako **txakurrak** salgai. Arrazakoa. ☎607 226738/943 642004.

Sei **ardi** saltzeko. ☎948 510498.

Bortz hilabeteko **zaldikoa** salgai. ☎948 634057.

**Astoa** salgai. 5 urtekoa, umearekin. Berriz ere arra hartua. Asto larria, kondizio onekoa. ☎669 664026.

Setter arrazako **zakurkume** emea salgai. 4 hilabete txertatua. Aita eta ama ehiztari onak. ☎661 821645.

3 **zaldiko** salgai, Arabe arrazakoak, alazan kolorekoak. 1 urte bat eta erdikoa eta 2 sei hilabete-koak. ☎646 918750.

**ANIMALIAK**  
oparitu

**Zakurkumea** oparitzeko. ☎679 892622.



**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

**LESAKA.** Osasun Zentroaren inguruan urrezko eskumuturreko ttikia (haurrena) galdu da. *In-tza 2008-09-28* paratzen du. ☎661 432630.

**DONEZTEBEN AVIA GASOLINDEGIA**

**AUTO BAT ASTERO**

Hilabete batean zehar CLUB AVIA txarterekin, AVIA gasolindegietan, zozketatu behar dugu

**AVIA** Leitzarako Erep. DONEZTEBE T 948 451 679

www.doneztebe.com

**BERUETE.** Txakur beltz ttiki bat galdu da duela hilabete bat. Hilabete batekoa, gutxi gorabehera. ☎948 503004.

**DENETARIK**  
salerosketak

Bigarren eskuko **ostalari-zako makineria eta altzariak** salgai. ☎948 451302.

Egoera onean dagoen **trikitixa** bat erosiko nuke. ☎607 407687.

**Agria** 9900 S traktorea salgai. ☎686 077491.

Basurde ehizean erabiltzen den **emisora-erzeptorea** salgai. Kenwo-

od TH-K2E modeloa. ☎652 757773.

4 ateko **hozkaile** mistoa herdoilgaitza salgai eta 3 su eta 3 planta dituen **su-kalde industrial**a salgai. ☎943 622564.

**ttipi-ttapa**

- Papereniko edizioa
- Himeroteka
- Eguneko berriak
- Agenda
- Merkatu ttikia
- Eguraldia
- Urtebetetzoak...

www.ttipi.net

**SATELITE BIDEZKO BANDA ZABAL BIDIREKZIONALEKO INTERNETA**



- Muganik gabeko kobertura
- Astra2 Connect plataformarekin
- Nafarroako Gobernuak subentzionatua. Enpresa eta partikularren konexiorako diru-laguntzak: 500€ 1Mb • 600€ 2 Mb
- Hilabetean 21,90€tik aurrera, aukera ezazu zure beharretara egokitzen den konexio modua

- 12 hilabeteko kontratua
- Urtea pasatuta ekipoa zurea izanen da
- e-Posta kontua doan
- VoziP linea numerazio lokala
- 250 kanal baino gehiago
- Euskarri digitala + ASTRA bidez emititzen denean TDT euskarria

**CONFORT**  
44,90€ hilabetean  
1024Kb/s  
128Kb/s  
\*256Kb/s

**EXTREM**  
69,90€ hilabetean  
2048Kb/s  
128Kb/s  
\*256Kb/s  
1 hilabetea doan

**Lizardi**  
Telekomunikazioak

Tel. 670 415 720  
joxeanlizardi@hotmail.com

TDT Instalazioak  
TB Instalazioak (satelite, lurrekoak)  
Instalazio indibidualak eta kolektiboak  
Portero automatikoak  
Eteko hari musikala

2012 **EUROPA** **BAHARRA** **sumera**



www.net2.es

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



**ARANTXA TOLOSA** eta **OIER GASTESIK** irailaren 22an eta 27an 34 eta 4 urte bete dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki izeba M<sup>a</sup> Joseren partetik.



Aizoaingo **JANIRE REMIREZ PERURENAK** 5 urte bete ditu irailaren 29an. Zorionak gure Osasunazaleari, Iturengo amatxi, osaba, izeba-osaba eta bereziki Naroa eta Unaxen partetik.



Aizoaingo **JANIRE REMIREZ PERURENAK** 5 urte bete ditu irailaren 29an. Zorionak eta bost muxu haundi gure etxeko printzesa politari, atta, ama eta nola ez, bere ahizpa Irairen partetik.



**SONIA, MARIBEL** eta **AITZIBER** urriruko hiru neskatxa hauek urteak beteko dituzte urriaren 1ean, 19an eta 21ean. Aunitz urtez hirukote eta 25na muxu haundi!



Gazteluko **NAHIA SARRATEA FAGOAGAK** 6 urte beteko ditu urriaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Maite zaitugu pila pilal!  
**Arizkungo AINIZE SAN MILLANEK** 7 urte bete ditu irailaren 20an. Zorionak printzesa eta muxu haundi bat Hegoi eta gurasoen partetik.



**MIKEL ATXALAN-DABASO IRIBARREN** doneztebarrak urteak beteko ditu urriaren 15ean. Zorionak familia eta bereziki Gogor eta Saioren partetik.



**ANDREA MINDEGIA IRIBARREN** doneztebarrak urteak beteko ditu urriaren 19an. Zorionak familia eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**ENDIKA PINTO MARITXALAR** beratarak 5 urte beteko ditu urriaren 6an. Zorionak maitia eta muxu haundi bat Oihan, aita eta amaren partetik.



**ENAITZ PORTU ZELAIETA** sunbildar gure kirolariak irailaren 23an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu potolo bat Sunbilla eta Berako familiaren eta bereziki gurasoen partetik. Tarta goxoaren zain egonen gara.



**SARAY BAZTERRIKA OBREGOZO** sunbildarrak 5 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak printzesa eta muxu haundi bat Pixanekobordako familiaren partetik.



Aunitz urtez portxola! Hagitz ongi pasa zure egunean eta ea tragoxka batera gonbidatzen gaituzun. Muxu haundi bat. Kaxkarrak.



Zorionak Kaxkarra guzien partetik. Zuri ere ailegatu zaizu eguna! Jaajajaja! Ongi pasa eta oroitu gutaz! Muxuuk! Kaxkarrak.



**IKER IPARRAGIRE OPOKAK** 8 urte beteko ditu urriaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama, Ane eta Elurren partetik.



Donamariako **XUBAN ERBITIK** irailaren 25ean 4 urte bete ditu. Muxu haundi bat Ibinka eta Ugaitzen partetik. Prestatu kas naranja.



Donamariako **BIHOTZ** eta **XUBANEK** irailaren 24an eta 25ean 3 eta 4 urte bete dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik.



Donamariako **MAIALENK** urriaren 1ean 6 urte beteko ditu. Zorionak panpoxa eta muxu haundi bat atta, ama, Mikel eta Unaiaren partetik.



**OIHAN LEGARRETA ARANBURU** aranoar bihurri honek 3 urte beteko ditu urriaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**MAIALEN ARRETXE**A sunbildarrak 3 urte beteko ditu urriaren 11n. Aunitz urtez mari matraka! 3 muxu ahizpa Iradiren partetik. Ongi pasa eguna!



Sunbillako **MAIALEN ARRETXE**A OTXANDORENAK urriaren 11n 3 urte beteko ditu. Zorionak Ibai, Janire, June, Ekiñe, Iradi, Egoi, Oier, Xuban, Ane, Oihan, Ekaitz eta Eneiten partetik.



**ONAITZ PRADE**RE AINZARTEK urtea beteko du urriaren 1ean. Zorionak aitaxi, amatxi eta familia guztiaren partetik.



Igantziko **UNAI INARREA** IGUZZIARRAK urriaren 7an urtea beteko du. Zorionak Igantziko eta Berako familiaren partetik.



**KIARA AGUDO** SANZ olaztiarrak 5 urte beteko ditu urriaren 8an. Muxu bat aitxi-amatxi, izeba-osaba eta bereziki Ekhiñen partetik. Zorionaak!

## TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**

### Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeraturako proiektua **can**



## Comercio en la calle Merkatariak karriketean

**Urriak, 10, Larunbata / Sábado: 10 Octubre**

10:30-12:30 Doneztebeko Trikitilariak / Trikitilaris de Santesteban

17:00-19:00 Musika kalean / Música en la calle

Bertako jokoak / Juegos populares

(Partehartzaileen artean bizikleta bat zozketatuko dugu)

(Sorteo de una bicicleta entre los participantes)

Egun osoan: Haurrendako tailerrak eta puzgarriak

Todo el día: Talleres infantiles e hinchables

**Urriak 11, Igandea / Domingo, 11 Octubre**

Egun osoan arratsaldeko 6ak arte / Todo el día hasta las 18

Kale animazioa: Zankoak, Kontukontariak, Giñol

Animación callejera: Zankos, Cuentacuenos, guiñol

Haurrendako tailerrak eta puzgarriak / Talleres infantiles e hinchables

**Doneztebeko ostatuak xixa eta onddo pintxoak eskeinitako dituzte  
Los bares de Santesteban ofrecerán pinchos degustación de setas y hongos.**

Denden ordutegia / Horario comercios:

Urriak 10 Octubre: 10:30-13:30 16:00- 20:00

Urriak 11 Octubre: 10:30-13:30 16:00- 18:00

Taloez bi egunetan / Talos los dos días

Bizikleta aparkalekua egonen da / Espacio para aparcamiento bicicletas

Gure dendetan urriaren 10 eta 11n erosten dutenen artean Elgorriako bainuetxean bi zirkuito termal egiteko bale bat zozketatuko dugu.


Sorteo, un vale de dos circuitos termales en el balneario de Elgorriaga entre los clientes que compren en los comercios asociados el 10 y 11 de Octubre.

Colaboradoreak / Legintzaileak



Donostebako Udalak  
Ayuntamiento de Santesteban





Izen emateko epea: Irailaren 28tik urriaren 16ra

Harremanak eta informazioa: **Baztango Udaleko Euskara Zerbitzua** [Foru Plaza z/g. 31700 Elizondo]

948 580 006 - euskara@baztan.es

**Baztango Suinko Euskaltegia** - 948 452 471

**Bortziriako Euskara Mankomunitatea** [Herriko Plaza, 7 31790 Arantza]

948 634 125 - euskara@bortziriak.org

**Bortziriako Euskaltegia** - 948 367 796

**Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua** [Merkatarien K, 17 - 31740 Doneztebel]

948 451 746 - euskarazerbitzua@malerreka.infolocal.org

**Malerrekako Euskaltegia** - 948 451 555

Arantza

Baztango

Legorreta



Baztango Udala

